



ONGI JATEKO IRAKURTZEN JAKIN BEHAR DA

IKER MORENO: "GUNE POLIKOETAN EMOZIOAK AZALERATZEN DITUENA BIKTIMA BIHURTZEN DUGU"

Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Asier Blas
- 20 Anuntxi Arana
- 21 Mikel Irizar
- Oihana Etxebarrieta



36ko gerrari buruz idatzi duen trilogiaz mintzatu gara Miguel Sanchez-Ostizekin. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: IKER MORENO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Julia Monge: "Emakumeen borroka gerra denboran erresistentzia totala izan da" / Miel A. Elustondo
- 22 | Supermerkatuan moldatzeko gida / Mikel Garcia Idiakez
- 27 | Ner Group. Gizarte proiektuetan 21.700 ordu urtean / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 28 | AP-8ko bidesarien igoera. Bizkaiko errepide sareko ajeen azken sintoma / Unai Brea
- 30 | Albert Boltran (CUP): Eskubideen alde, desobedientziaren aldarria eginez / Axier Lopez
- 34 | Jolasaren bidez sexismoa lumatzen / Garazi Zabaleta
- 36 | Osakidetzan, euskaraz eskainiko ez dizutenez, zuk eskatu / Onintza Irureta Azkune
- 37 | Beskoitzeko ikastola: Falloux Legearen oldarraldiari eutsita / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Miguel Sanchez-Ostiz: "Gerra hementxe dago, bestela ez nukeen idatziko" / Aritz Galarraga

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratiz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Desindustrializazioaren mamua

1973an 5.380 langile aritzen ziren Sestaoko Babcock & Wilcox fabrika ezagunean. 392 langile ziren 2011n itxi zutenean. Haren hondarrak iraganeko eta gaur egungo mamuaren lekuko dira; egun ere sistemak enpresak ixten edo deslokalizatzen jarraitzen baitu. Sestaon bertan, ACB enpresak urtebetez itxiko du behin-behinean, eta gero behin betiko, 335 langile eta familien kalterako, Araban, Aernnovak jarraitzen du ehunka lanpostu murrizten eta TRW multinazionala ere prest dago Nafarroan ehunka lanpostu desagerrarazteko.

Argazkilaria: Sergio Suhigarai



“Konponbidearen bidea oztopatua dagoen bitartean, kartzelako egoera gero eta gordinagoa da”

EPPK

argia.eus/multimedia



Kalamua:
osasunaren gaineko
kezka ala interesak?

Martin Barriuso Pannagh el-karteko presidentearekin eta Aitor Brion abokatuarekin hitz egin dute Ertzak saioan.



Nafarroaren garaia

Juan Kruz Lakastaren dokumentalak Nafarroaren eta Euskararen Eguna du ardatz. Uxue Barkos, Floren Aoiz eta Gorka Urbizuk parte hartu dute, besteak beste.



Iruñeko euskalgintza “pozarren”, haur eskoletan euskarazko eskaintza handitzearekin

Euskalerria Irratia
@fm914

Iruñeko euskalgintzak pozarren hartu du Udalak 2016-2017 ikasturtean 0-3 zikloko haur eskoletako euskarazko eskaintza handitzeko hartu duen erabakia. Horrela jakinarazi dute Sagrario Aleman eta Asier Biurrunek Iruñeko Euskalgintzaren izenean. Hogei urtez Iruñeko 17 haur eskoletatik bitan baino ez da euskaraz hezteko aukera eman eta hurrengo ikasturtean eskaintza hori beste bi auzotara hedatuko da: Donibane haur eskolara eta Arrosadiako Printzearen Harresi haur eskolara. “Berri ona da hori”, adierazi dute Iruñeko Euskalgintzaren eledunek.

“Urte luzez euskaraz bizi nahi duten herritarrek baztertuak izan dira eta haien

hizkuntza-eskubideak urratuak”, gaineratu du Sagrario Alemanek. “Urte hauetan guztietan ehunka gurasok ezin izan dituzte euren haurrak euskaraz hezi 0-3 urteko zikloan eta aukera izan duten apurrek beren burua hautatu beharrean ikusi dute: beren seme-alaba auzoko haur eskolan utzi (gertu, eroso...) euskaraz heztere uko eginez edo egunero Txantrea joan-etorrian ibili haurra euskaraz hezi ahal izateko”. Alemanek gaineratu du, “urte hauetan guztietan etengabea izan da Iruñeko auzo guztietan euskarazko haur eskolak izatearen eskaera”.

Bestalde, Joseba Asiron Iruñeko alkateak gogoratu du 1983an, haurreskolak Iruñean ireki zirenean, zortzi ikastetxetik bi zirela euskaraz. Egun, proportzioa 14tik bikoa da “eta bitik laura igarotzea UPN-PSNren iritzi euskara inposatzea da”, kritikatu du.

“Inpotentzia jasan nuen erasoan, baina argi dut ez naizela isilduko”

ETB-KO KAMERARIA


Jai giroan, emakumeen kontrako eraso ugari izan dira. Inauterietan, Tolosan emakume batek eta Gasteizen bi adingabek jasan zituzten erasoak; Altsasun, Santa Ageda bezperako “eraso larria” salatu du mugimendu feministak. Lantzeko inauterietan ere, ETBko kamerari batek azaldu du hiru bider jazarri zutela. “Horrelakoak ezin ditugu onartu, jaiak, inauteriak edo ekitaldi publikoak izan arren”. **BERRIA (2016-02-10)**



Zika birusak fetuei mikrozealia eragin diezaiekeelakoan, eta Hego eta Erdialdeko Amerikan zein agudo hedatzen ari den ikusirik, larrialdi egoera globala dekretatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak, otsailaren 1ean. Estatu kaltetu gehienek birusa transmititzen duen eltxoa suntsitzera bideratu dituzte ahaletinak, eta haurdunaldia ekiditeko gomendioa luzatu

zaie emakumeei, horretarako inongo kanpaina lagungarriarik abian jarri gabe. Zikak gogorren jotzen duen tokietan –lurralde txiroenak dira, bide batez esanda– kontrazepzio neurriak hutsaren hurrengo dira, ez dago heziketa sexualik ez osasun zerbitzu efektiborik, abortua gogor penalizatuta dago eta emakumeen aurkako indarkeria tasa handia da.

Zika birusa eta emakumeen ugaltze eskubideak Hego eta Erdialdeko Amerikan



ZIKA KASU BAIEZTATUAK HEGO ETA ERDIKO AMERIKAN ETA KARIBEN



Diagnostikoak ez dira fidagarriak eta sarri beranduegi heltzen dira.

Haurdunaldien

%56

ez dira planifikatuak

24 milioi emakumek

ez du antikonzeptzio neurriarik eskura. Lurralde txirotuetan bizi dira, osasun zerbitzurik ez den tokietan.

4 milioi abortu arriskutsu urtean

Nerabeen %23

gutxienez behin gelditzen da haurdun 18 urte bete baino lehen, El Salvadorren.

nerabe haurdunen %9

abortu arriskutsuen ondorioz hiltzen dira.

7 estatutan ezin da inolaz ere abortatu

Ezta fetuaren malformazio kasu larrietan, bortxaketetan edo amaren bizitza arriskuan denean ere. (Nikaragua, Haiti, El Salvador, Honduras, Txile, Dominikar Errepublikak).



Bi dira EAEko ikastetxe publikoen artean bertako sukaldeari eusten dioten bakarrik: Larrabetzukoa eta Erandioko Altxaga ikastetxea (irudian).

DANI BLANCO

Lurdes Imaz: “Catering enpresak gurasoen kuotatik aberasten aritu dira”

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

EAEko ikastetxe publikoetan jana banatzen duten zortzi catering enpresari guztira 18,4 milioiko isuna jarri diete, Lehiaren Euskal Agintaritzak frogatutaz jo baitu merkatua banatu zutela eta hamar ikasturtetan (2003-2011 eta 2013-2015 bitartean) jokabide irregularra izan zutela. Honako enpresei jarri diete isuna: Eurest (6.640.713 euroko isuna), Auzo Lagun Kooperatiba (6.108.446 euro), Gastronomía Cantábrica (1.626.662), Baska (1.546.226), Tamar Las Arenas (1.108.347), Magui (775.827), Goñi (522.879) eta Eurest Euskadi (135.497).

Eider Olazar kazetariak Lurdes Imaz Euskal Herriko Gurasoen Elkarteko bozeramailea (EHIGE) elkarrizketatu du Info7 irrati-katean, eta “oso gai larria” dela azpimarratu du Imazek: “Honek erakusten du azken hamar urteotan familiok zegokiguna baino gehiago ordaintzen aritu garela; gurasoek ordaindu beharreko kuota igotzen joan dira eta kuota horretatik aberasten aritu dira. Berrikusi egin beharko da hori guztia”. Halaber, isuneko dirua eskola publikoko jantokietan inbertitzea espero du EHIGEk.

Bat kenduta, jantokietako janariaren ardura enpresa berdinen esku jarraitzen duelako kezkatuta ere agertu da bozeramailea, “isuna jaso duten enpresak direlako gure seme-alaben jantokiak kudeatzen ari direnak”. Eta afera honetan guztian Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna handia dela nabarmendu du, hark eskaintzen duelako zerbitzua, erabakitzen duelako zeini esleitu, eta azken buruan hari dago kiolako jarduna modu egokian egiten dela bermatzea, “diru publikoaren kontrola eramanez, xahutu beharrean”.

Bestelako kudeaketaren alde

EHIGEn aspaldiko eskaera da, Jaurlaritzak araudia alda dezala, jantokietan bestelako kudeaketa ahalbidetzeko. Imazen esanetan, ikastetxeek edota guraso elkarrekin hala nahi dutenean, jantokia eurek kudeatzeko aukera eman beharko lieke Jaurlaritzak, gainerako ikastetxeek dituzten baldintza eta babes berarekin –catering enpresekin ari ez diren ikastetxeek ez baitute diru-laguntzarik jasotzen, praktikan eskola publikoak catering sistemara kasik derrigortuz-. Egungo kudeaketa mota oso zurruna dela kritikatu du, hala nola ez duelako aukerarik ematen bertako produktu eta ekoizleekin jokatzeko eta ondorioz, bertako ekonomia bultzatzeko.

EKONOMIAREN TALAIAN

ACB-Arcelor: Txina aitzakia da



Juan Mari Arregi

Arcelor-Mittalen esku dagoen ACB-ko beharginak Sestaoko plantan itxialdi mugagabea hasi dute, zuzenean 335 lanpostu eta zeharka beste 1.000 mantentzen dituen instalazioak irekita segi dezan. Eusko Jaurlaritza euskal altzairugileekin bildu da lehia desleiala aztertzeko. Bere aldetik, altzairuaren lobbyak –tartean Arcelor Mittal dela– manifestazioa egin du Bruselan, Europako erakundeei kalean presionatzeko, *dumping* txinatarraren aurrean neurriak har ditzan. Mugimendu guztion atzean dagoen arrazoa da Txinaren ustezko lehia desleiala, European siderurgia produktuak oso merke eta produkzio kostuen azpitik sartu nahi omen dituelako. Enpresek, Eusko Jaurlaritzak eta beste gobernuek, herrialde asiarrak salatu dute sorturiko egoera larria dela-eta.

Txina al da erantzule bakarra, Arcelor-Mittalek bertan siderurgia plantak dituenen? Ez al da izango multinazional kapitalistak sektorean langile murrizketa handi bat egiteko giroa sortu duela? Sestaoko ACB eta bertako beste enpresa batzuk itxi edo deslokalizatu nahi dituela kostu gutxiagoko tokietara eramateko? Eta, Eusko Jaurlaritzak, BBK-k eta antzeko erakundeek ez dute inolako erantzukizunik horretan? Urte gutxi dira ACBren akzioen %20 saldu zituztela, multinazionalari aldebakarreko erabakiak hartzea erraztuz.

Euskal altzairugintzaren defentsa ez da hitzekin edo bilera hutsalekin egingo. Multinazionalak eta industri talde handiek ez dute inolako konpromisorik herri honekiko, euren akzionistentzako etekinak baino ez dituzte nahi. ACBren euskal partaidetza saltzea, haren bideragarritasuna arrisku larrian jartzea izan zen.



Eta ezustean, "Kapitalismoa borrokatu" pintada egin zuen artistak

DONOSTIA. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren baitan, *Hormek diote* proiektuaren lehen parte gauzatu zuten urrian hainbat artistak. Hiriko bost pareta beste horrenbeste artistaren esku utzi zituzten "istorio bana" konta zezaten; artista horietako bat da Dizebi itsasondoarra. Baina Dizebik ez zuen marrazki bereziki ederrik egin, hirian ikusgarritasun handia duen dorre grisean. Andamioa baliatuz, ondorengo idatzi zuen: "Kapitalismoa borrokatu". Ondoren, ezabatu egin zuen dena "Kapital" izan ezik. Egun, horrela dago. "2016 kultur hiriburutza zer den pentsatu behar dugu, ekimen hauek zertarako egiten diren eta kulturak hiriburutza zer paper jokatu duen", adierazi du.

Grabitazio-uhinak: aro berria hasi da astronomian

Unai Brea
@unaibrea

Albert Einsteinek erlatibitate orokorraren teoria argitaratu eta mende batera, teoria horrek aurreikusitako grabitazio-uhinak zuzenean detektatu dituzte –1974an atzeman zituzten lehen aldiz, zeharka– LIGO behatokiko zientzialariek.

Zer dira?

Einsteinek esan zuen gorputzek beren inguruko espazio-denbora deformatzen dutela, eta mugitzen diren gorputzek, gainera, uhinak eratzen dituztela. Hori da behatu dena. LIGOk atzeman duen uhina, zehazki, bi zulo beltzen arteko talkak eragindakoa da.

Zulo beltzak: egon badaude

Neurtutako seinaleari esker, zulo beltzak existitzen direla ziurtzat jo daiteke azkenik. Orain arte, haien existentziaren frogak bakarrik beste objektu astronomiko batzuetan duten eragina zen, baina ez zen erabatekoa.

Ohikoa da detektatu den gertakaria?

Aro berria hasi dela adierazi dute zientzialariek. Grabitazio-uhinek ezkutuan zeuden unibertsoaren zenbait gertakari ezagutze-ko aukera emango dute. Baina ez dakigu neurtu dena bezalako fenomenoak ohikoak diren edo ez.

SIRIAKO GERRA



470.000

biztanle hil eta 1,9 milioi zauritu ditu Siriako gerrak hiru urteotan, Syrian Centre for Policy Research erakundearen arabera.

%45

etxetik ihes eginda dabil, 6,5 milioi Sirian bertan, 4 milioi inguruko herrialdeetara joanik. Denera herrialdeak populazioaren %21 galdu du.



PROTOKOLOA IKASLE TRANSEXUALENTZAT

Ikasle transexualak artatzeko protokoloa ari da prestatzen Eusko Jaurlaritza. EAEko ikastetxe guztietara zabaltzeko asmoa du eta helburua eskola giroan haur eta gazte transexualek dituzten beharrak asetzea da.



HEGO EUSKAL HERRIRAKO GIZARTE SEGURANTZA

Hego Euskal Herriako Gizarte Segurantzaren eta Pentsio Sistema propioa proposatu du EAJk. "Pentsioen Sistema Publikoak Espainiako Estatuan gaur egun pairatzen duen defizit-egoerari alternatiba" bilatu nahi izan dio. Neurria 2019. urtetik aurrera aplikatuko litzateke.



EZTABAIDA "ABIAN"

Ezker abertzaleak sarean eskuragarri jarri du *Abian* txostena, herri eta auzoetan eztabaidatzeko. "Zutik Euskal Herriaren potentzial guztia askatzea" da asmoa.

Paradisu galduen bila



Xabier Letona

@xletona

ZERUA HARTU, hori da helburua. Eta ez kontsentsuaren bidez, asaltoan bai-zik, zioen Pablo Iglesiasek Podemoseko lehen kongresuan. Institutuzioak azkar hartzeko sortu zen bere alderdia, eta 2014ko europar hauteskundeetatik hona instituzio askotara iritsi da Espainian. Aliantza esparruak zabalduz, 2015eko udal hauteskundeetan ondoren gobernu ardura ugari hartu zituen, Madril eta Bartzelonako udalak besteak beste. Orain Espainiako Gobernuan sartu ala ez erabaki beharko du, Pedro Sanchezen PSOEek horretarako aukerarik eskaintzen badio bederen. Edota berari komeni bazaio.

Sartu ala ez sartu, horra dilema. Nola indartuko da hobeto Espainiako ezker eraldatzailea, gobernuan edo kanpoan? Bide biek izan ditzakete bere onurak eta arriskuak. Bere oinarriaren zati batek gobernuan sartzea eskatzen dio, bestela PPK gobernatuko duelako. Alternatiba latza da, batez ere jakinda hark nola jokatu duen datozen lau urteetan.

Zer da oraingoz Varoufakisek lortu duen garrantzitsuena? Esperantza. Ez da fikzioa, lor liteke. Kapitalismoak bere oinarrian duen dogmarik tinkoenari aurre egitea da

Baina gobernuan sartzeak ere bere etorkizuna hipoteka dezake, Syrizarik gertatu zaion moduan, areago gainera kasu honetan PSOEren menpeko izanda. Gobernuan egoteko zalantzarik ez du

Pablo Iglesiasen alderdiak, baina kontua da noiz. Orain edo hauteskunde berri batzuetan indartu ondoren? Gobernuan hasteko hautuari helduz gero, bi gauza pentsatu beharko ditu zorrotz: bat, PSOEek gidatutako gobernuak murrizketak gogorrekin ekin ondoren nola jokatuko duen; eta bi, eta garrantzitsuena, apurketa emanez gero bere alternatiba nola landuko lukeen.

Azken finean, gobernu barruan edo kanpoan, indar metaketarekin nola jarraitu pentsatu beharko du ezinbestean, Espainian oinarritzko aldaketak eman daitezen hori ezinbestekoa baita. Baina aliantzak ere beharko ditu horretarako, bakarrik ezingo du. Oso egoera desberdina izan arren, Gipuzkoan Bilduri gertatu zitzaiona aski esanguratsua da.

Estatuaren periferian indar eta aliantza garrantzitsuak izan ditzake azken hauteskunde orokorretan ikusi den gisan. Espainiaren muinean gordinagoa du, IUren indarra gehitzeak ez dirudi horren gaitza eta ez da txantxetako (2 diputatu, baina milioi bat boto). Hala ere, beste aliantzak ere beharko ditu, seguruenik PSOEren esparrukoak, haren jendea erakarriz edo alderdia ezkerreara eramanez. PSOE edozelako aldetaren alternatibak jartzea erabat sinesgaitza da orain, baina izan Sanchez edo Susana Díez legezain, honek erabaki beharko du Portugaleko PSren eredu nahi duen edo Greziako PASOKena.

BI HILABETE JOAN DIRA abenduaren 20tik eta epeak aurrera egin ahala hauteskunde berrien itzala gero eta handiagoa da Espainian. PPK hori nahi izan du hasieratik, baina ustelkeriak enegarronez inguratzen duenean, orain ez du unerik egokiena C's-eko boto emaileak berreskuratzeko. Podemosentzat, aldez, une aproposa izaten jarraitzen du eta

IUren atala ondo lotuz gero ez litzateke batere harritzekoa PSOEren parean edo aurretik jartzea. Inkestek norabide hori erakusten dute. Logikak ere bai.


Irudika dezagun hauteskundeak errepikatzen direla eta Podemosek eta PSOEek gobernu era argiagoan era dezaketela, baita Pablo Iglesias izan daitekeela Espainiako gobernuburu berria ere. Batetik Troika zain izango luke Bruselan, Greziarekin egindakoa errepikatzeko prest. Baina berdin jokatuko luke? Igual ez, ez behintzat Portugalek, Espainiak, Italiak eta Greziak hainbat oinarri adostuko balituzkete. Politika fikzioa? Gaur egun bai, EBn zerbait alda daitekeela pentsatzea adinako fikzioa.

YANIS VAROUFAKIS Greziako finantza ministro ohiari ez egin berba fikzioaz, berak argi du Europar Batasuna alda daitekeela. Horretarako akuilatzen du Demokrazia Europar Mugimendua 2025 (DIEM25). Ikusi du estatu bakar baten indarrak handienarekin ere ezin zaiola aurre egin Bruselari, herritarren mugimendu paneuroparra ezinbestekoa dela aldaketa demokratikoa gauzatzeko.

Zer da oraingoz lortu duen garrantzitsuena? Esperantza. Ez da fikzioa, lor liteke. Kapitalismoak bere oinarrian duen dogmarik tinkoenari aurre egitea da: kapitalismoa aldatzea posible da. Dena den, Varoufakisen helburua ez da EBn kapitalismoarekin amaitzea, berau demokratizatzea baizik.

Herritarren mugimendu handia, Estatuen aliantza molde berriak, Europar instituzioetatik alderdien bultzada... Zer behar da EBko paradisuetara iristeko? Batek daki, baina saio bateratuek emaitzarik ematen ez badute, oso posible da datorren hamarkadan herriek haien zerua EBtik kanpo bilatzeko. ■

PSOEK aldarrikatzen duen Espainia Federala ulertzeko
partidoa bera, adibidegarri



Amatxik hartu zuen DES estrogenoa, alabak eta bilobak ordaintzen dute



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Ipar Amerikan eta Europan milaka emakumek nozitzen dituzte beren amei haurdunaldia hobetzeko emandako DES Diethylstilbestrol hormona sintetikoaren kalteak, beren soinetan eta egin dituzten haurrenetan. *Talidomida isila* deitu izan zaion DES ahaztuaren hirugarren belaunaldiko biktima batek salaturik, farmaziako konpainiak auzitan izango dira martxoan Parisen.



Sylvie Le Cossec Nanterreko (Frantziako Estatua) auzitegian izango da martxoaren 10ean bere seme Julienekin. UCB Pharma konpainia edukiko du aurrez aurre. Epaileek erabaki beharrekoa: ea lotura garbirik duenez UCBk saltzen zuen Diethylstilbestrol –frantsesez *Diethylstilbestrol* izenez ezaguna– botikak Sylviek seme Julien goizegi erditu eta honek betirako elbarritasun gogorrak nozitzearekin.

Julienek dauzkan arazoak herritarren begien aurrean azaltzen ditu amak Facebookeko *DES, mon fils n'aura jamais son bac* (DES, gure mutikoak ez du inoiz gaindituko baxoa) kontuan: “Garun paralisi oso larria dauka. Eguneroko bizi-moduko gauzetan ez dauka batere autonomia, eten gabeko laguntza behar du. Patologia ortopediko eratorri bat ere badauka. Hitzaz adierazteko ahalmena oso murrizta dauka, ez du esaldirik osatzen eta ideiak errepikatzen mugatzen da. 2 urteko haur bat da 17 urteko nerabe baten gorputzean”.

Kontua da Juliene malurrak ez datozkiola amak hartu zuen ezertatik... amonari medikuak aspaldi agindutako estrogeno batetik baizik. DESaren hirugarren belaunaldiko kaltetua da, *DES biloba*. Horretaz du martxoaren 10ean Nanterreko epaitegiak ebatzi behar.

Sylvie *DES alaba* dela auzitegi berak frogatutzat eman zuen duela bi urte, 2014ko martxoan. Julien semeak ekarri eritasunez gain, aurretik bi haurdunaldi patologiko eduki zituen Sylviek eta

uteroa kendu behar izan zioten. Kalte ordaintzat UCB Pharmak 81.910 euro pagatu behar izan dizkio, 8.000 senarari eta 10.000 Sylvieren amari.

Mundu garatuko medikuak 1940an hasi ziren gomendatzen DES hormona sintetikoa haurdunaldia abortuz galtzeko arriskua zuten emakumeei. Geroztik jakin denez, botika berriari egindako testetan ez zen frogatu ustezko onura horiek ere lortzen zituenik, baina asko zabaldu zen bere erabilera mundu aberratseko emakumeen artean. Euskaldunoi dagokigunez, Frantziako oso ezaguna zen; badirudi Espainian –ginekologia kontuak berriagoak dira hemen– gutxi sartu zela, 1980an iritsi zelako bere debekua.

Droga 1938tik erabili ostean AEBetan 1971n debekatu zuen FDA Elikagaien eta Botiken Agentziak. Hala ere Europan konpainiek segitu zuten DES saltzen, eta mediku batzuek gomendatzen. Frantziako Estatuan 1977an debekatu zuten, Italian 1981ean. Geroztik, estrogeno hori prostatak minbizi metastasiatuetan erabiltzen dute urologo batzuek.

Uste da DES AEBetan hiru milioi emakumek hartu zutela, 1940ko hamarkadatik 1971 artean. Frantziako 200.000 ingururi eman zitzaizkion, eta hauen 160.000 haur omen dira *DES seme* edo *DES alabak*, ezagunenak azken hauek izaki. Milaka emakumeon arazoak diagnostikorik ezak larriagotzen ditu.

Talidomida famatua hartutako emakumeen kasuan umeei elbarritasunak jaiotzean bertan aurkitzen zizkieten. Al-

diz *Talidomida isila* deitu zaion DESaren ondorioak gehienetan askoz berandua go agertzen dira, nerabezartotik aurrera. Sarritan seme-alabok amaren botiketatik jaso dituzten kalteak organo genital eta ugalkorretan garatzen dituzte –minbizi eta malformazio larriak, esterilitatea, abortuak eta abar– baina depresioa eta bestelako malformazioak ere bai.

Hormona banalizatuak neskentzat

Hormona sintetikoak aspalditik daude medikuntzako eztabaida handietan, dakartzaten alboko kalteengatik. Urte luzez kortisonak modu indiskriminatu erabili izan dira, kasik mirarizko botikatatzat. Menopausian diren emakumeentzako hormonazko terapia ere auzitan jarrita dago gaur egun. Eta mundu osoan emakumeen askapenerako tresna inportantea izan diren antisorgailu hormonalen ondorioez ere hitz egiten hasten da.

Gaiotaz interesaturik denak –emakume orok beharko luke– informazio iturri oso on bat aurkituko du *DES Daughter Network* blogean. Dominique Albertek sortzez frantsesak animatzen du Ingalaterrako Bristol hiririk.

Albertek *The Independent* egunkariari kontatua dio 13 urterekin jakin zuela DES hartua zuela bere amak. Berandua go, lehenbiziko haurra galtzean esan zioten T formako uteroa zeukala. Britainia Handiko aseguruak operazioa ukaturik, Frantziako egin zioten. Medikuekin eta osasun zerbitzuekin eten gabeko borroka dauka DES alaba askok bezala.



'L'Express' astekariak 2014ko martxoan argitaratutako argazki handian, Sylvie Le Cossec bere seme Julienekin. Irudi txikian DES molekularen marka komertzialetako bat den DesPlex botikaren publizitatea 1950eko hamarkadako prentsari. Haur galtze, aborto eta erditze goiztiarrak prebenitzen dituela aldarrikatzeaz gain, "haur handiago eta sendoagoak ere bai" agintzen ditu eta edozein haurdunalditarako gomendatzen. DES alaben tragediak irakaspen asko eskaintzen ditu gaur gizakion soinetara edonondik iristen diren etengailu endokrinoen kalteez.

"Emakume askok -dio Albertek- ez daki bere amak botika hartu zuela. Horra Britainia Handiko emakume askoren arazo larria, haurrik izan ezinda egon daiteke edo bularreko minbiziak jota, jakin gabe DESagatik dela. Nire amak bere burua kulpabilizatzen zuen, baina niretzako okerragoa izango da. Amak ez zekien zer ari zen hartzen, baina nik haurra izan nuenerako banekien hiru garren belaunaldikoek ere arriskuak dauzkatela. Alaba gaixotzen baldin bazait, errudun sentituko naiz, baina ez dut horren biktima bizi nahi".

Suitzako telebista frantsesezkoak DESari eskainitako erreportaje batean mintzatu da Patricia Buge paristarra. Hiru haurren ama, lehenaren eta bigarrenaren artean hiru abortu izan baitzuten, utero estuegia zeukala oharturik ginekologoak galdetu zion ea bere amak

sekula hartu ote zuen *Distilbène* botika. Zenbat emakumek eskuratu ote dezake amaren historia medikua? Patriciai horrela jakin zuen DESaren biktima dela.

Bere alabetako batek hipotiroiditisa garatu du eta aho-sabaian malformazioa dauka. Bigarren alabak kisteak dauzka obarioetan, eten gabe azaltzen zaizkionak. Patriciaren ahizpak ere arazo larriak izan ditu: kantzerra lehenik birikan, gero bularrean eta gero obarioetan.

Semeak Hipospadias bat nozitzen du: zakilak zuloa ez dauka muturrean, beste leku batean baino. Amaren sabelean zegoela estrogenoak hartu izanaren feminizazio zeinu bat, adituen ustez. Nahiz eta estrogenoak amak ez, amaxik hartu. Mutil biktima askok dakarte arazo hori.

DESak belaunaldiz belaunaldi transmititzen ditu kalteok. Gizakietan hiru-

garren belaunaldikoek azterketan ari dira ikertzaileak, baina animaliekin egindako frogak erakutsi dute seigarren belaunaldian ere kalteak nozitzen dituztela. Horrek esan nahi du, genetikako adituentzat, DES bezala kanpotik emakumeari sartutako hormona sintetiko batzuek zelulen DNA bera eraldatzen dutela, kalteak hereditario bilakatuz. Horra zergatik deitzen zaien etengailu endokrinoak (*endocrine disruptor* ingelesez).

Diethylstilbestrolaren familia berekoa da Bisfenol A hormona sintetikoa ere. Ez dira nahikoa haizatu hori daramaten plastikozko botila, jostailu, autoen pieza eta abarren arriskuak, DES haurren tragediak erakusten duenez belaunaldiz belaunaldi transmitituko direnak. Zer esanik ez erraustegi eta zementu fabriketan milaka tonaka erretzen badira. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Julia Monge, Intxorta 1937 elkarteko kidea

«Emakumearen borroka gerra denboran erresistentzia totala izan da»

Iragan abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, ekitaldia Gasteizko lehendakartzaren egoitzan René Cassin sariaren kariatara. Frankismoaren krimenen kontrako kereilaren Euskal Plataforma da saridun. Lau lagun igoarazi dituzte oholtzara. Tartean da Julia Monge Sarabia.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Erakusketa prestatzen ari zarete Intxorta 1937 elkartean.

Bai. Iaz gudari eta milizianoei omenaldia egin genien Elgetan, apirilean. Ustekabea, txiletar batekin egin genuen harremana, Mauro Saravia. Hura, bizirik geratzen diren gudari eta milizianoak topetan zebilen, argazkiak ateratzeko helburuarekin. Gu, berriz, elkarrizketak egiten ari ginen gudari eta milizianoen artean. Gure indarrak batzea pentsatu genuen, eta halaxe egin genuen. Bizkaiko Batzar Nagusietara jo, Ana Otaduirekin egon, gure asmoa azaldu, eta laguntza txiki bat eman digute. Orain, martxoaren hasieran, erakusketa egingo dugu Bilbon, eta ondoren, beste zenbait lekutan ere erakutsiko da. 27ren bat pertsonaren argazki eta biografia laburrek osatuko dute erakusketa. Aurten, berriz, emakumeak omenduko ditugu, haien testigantzak batzen ari gara, haiei argazkiak ere egiten, hurrengo urtean emakumei eskainitako erakusketa egin ahal izateko.

2012an egin zenuten dokumentala ez da abiapuntu kamutsa: «Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa».

Arrasaten ez ezik, Bergaran, Aretxabaletan eta Oñatin ere eginak ditugu dokumentalak. Beste bat ere bai, Intxortari buruz oro har ari dena. Kontua da gizonezkoen egitekoa askoz ere ikusgarriagoa dela: bateko batailoia eta besteko konpainia, gerrako borrokan. Emakumearen borroka bestelakoa zen, baina borroka, hala ere. Horixe adieraziko dugu aurten Elgetan. Omendu nahi ditugun emakumetako batzuk hilda daudenez, beraien senideen bidez jasoko dute omenaldia.

Jakina, adineko jendea.

Bai horixe! Lehengo batean, Toulousen izan gara, emakume batekin hizketan. Teresa Nadal du izena. Aita sozialista zuen, eta Bilboko udal zinegotzia gerra baino lehen. 1934ko iraultza tarteko, preso hartu zuten. Aita kartzelan zela, 1935ean Teresa Medikuntza ikasketak egiten hasi zen Zaragozan. Ehun ikasle baino gehiago

omen ziren, eta hiru besterik ez, andrezkoak. Lehenengo ikasturtea egin, oporretan Bilbora itzuli, eta uztailean, gerra. Ez zen Zaragozara itzuli. Gerra, eta aita kartzelatik atera zuten amnistia legea baliatuz. Teresa berriz, boluntario joan omen zen erizain. Berak esan ziguna: “Medikuntzako lehen urtea egin bai, baina medikuntzaz ezer ere ez nekien!”. Kanpaina-ospitalea jarri zuten Bilboko zezen-plazan, eta hantxe jardun omen zuen Teresak, kirofanoan, beste zenbait lagunekin batera. Berak dioenez, zauritu larriak eta jende “esanguratsua”, eraman omen zuten hara. Bilbo jausi zenean, Santanderrera Teresa, gurasoekin. Handik, Frantziara; gero, Kataluniara; hurrena, atzera Frantziara. Eta senarra izango zuena ezagutu zuen, hau alemaniarrengandik ihesian zetorrela.

Hala Teresa nola gizona, biak gerratik ihesi.

Horixe esaten zuen Teresaren seme Albertok. Gaztelaniaz primeran hitz egiten du, amak gaztelaniaz hazi zituelako, alderdi honetara laster itzuliko zirelakoan. Frantzian bizi izan da beti.



Julia Monge Sarabia

1957, Arrasate

Ekintzaile feminista, Zutik-eko kide eta zinegotzi ohia, Intxorta 1937 elkarteko kide, Gorripidekoa... "Aktibista" diote, baina, lehen-lehenik irakasle izan zen, irakasle saiatu eta porrokatua Arrasateko herri eskolako irakaskuntza publikoan. Garrantzi handikoa izan zuen lan hura, eta hartan jardungo zuen ikusmen arazo larriek bide hura galarazi izan ez baliote, bateko betsareak eta besteko erretinak erretretan sartzerara behartu izan ez balute. Gaitz erdi, militantzia sena ez du inoiz galdu.



“Egia da batzuek aita edota anaia galdu zutela gerran, baina haien heriotzaren ondorioak emakumeek jaso zituzten, bizirik geratu zirenek”.

Odisea.

Bada, Frantziatik Marokora joan ziren, lana tarteko. Handik, Aljeriara, non bertako gerrak harrapatu baitzituen. Umeak ere hazten ari zitzaizkien, ikasteko adinean, baina ikasteko modurik ez, eta Frantziara itzultzea erabaki omen zuten. 98 urte Teresak, eta Elgetako omenaldira etortzeko ideia dauka.

Emakumea lehenengo planora ekarriko duzue Elgetan aurren.

Horixe da gure asmoa, lehenengo planora ekartzea. “Guk ez dugu ezer egin!”, zenbat aldiz entzun behar izaten ote dugu. Besteetan, beste inoren testigantza ematen dute, beraiek jasan zutena kontatu gabe, edo garrantzia eman gabe. Egia da batzuek aita edota anaia galdu zutela gerran, fronteko borrokan, baina haien heriotzaren ondorioak euren jaso zituzten, bizirik geratu zirenek.

Hala ere, besterena baloratzen dute, norberarena barik. Inor etxera etorri, aita hartu, kanposantura eraman eta paretaren kontra hiltzea izugarria da, baina bizirik geratzen direnen estigma hor dago: “Gorriaren andrea... gorrien seme-alabak...”. Eta, jakina, ezin ezer esan. Isil-isilik, umeak aurrera atera eta kito! Kontatzeko garaian, besterena kontatzen dute, besteri gertatu zitzaiona, euren sufritu zutena barik.

Zenbaitek ez du kontatu nahi izaten.

Gertatu izan zaigu, behin baino gehiagotan. Inoiz, testigantza jasotzeko ordua adostu eta, azken orduan, ezetz. Gogoan daukat kasu bat, andreak baietz esan, bizitakoa kontatuko zuela, eta haren semearen ilusioa! “Oso-oso isilik gorde ditu horiek denak, eta orain, ia-ia 100 urte, eta kontatu egingo ditu. Poz ematen dit”. Bezperan, gaixotu egin zen

emakumea, buruan larria sartu zitzaion, eta... ez zuen kontatu. Kasu horietan guk beti errespetatzen dugu inoren erabakia, testigantza galdua gorabehera. Batzuek beti kontatu izan dute iragana. Beste batzuek tabu izan dute. Eta bada nagusitan kontatzen hasi direnak, zahartutakoan. Teresa Nadalen kasua da. Haren seme Albertok esan zigun: “Oraintxe hasi da gure ama ordukoak kontatzen”.

Zertan da hartzailearen jarrera? Aintzakotzat hartzen ditu jende adin handikoa- ren lekukotasun berbak?

2012an, Arrasateko emakumeen gaineko dokumentala egin genuenean, aurkezpena egin Amaia antzokian –lehenengo, euskarazko proiektzioa; ondoren, omenaldia; gero, gaztelaniazko bertsioa–, jendea hunkituta zegoen, guztiz. Baina konturatzen gara gazteek, oro har,



Euskal Plataforma

“Hainbat elkartek osatzen dugu frankismoaren krimenen kontrako kereilaren Euskal Plataforma. Bakoitzak bere ukitu berezia du: horra Martxoak 3koak, horra Intxorta 1937koak, horra... Eta baliteke une jakin batean desadostasunak izatea gure artean, baina oraintxe, kereilak batzen gaitu, hor ez dugu gorabeherarik”.

Isidro Monge

“Behin, Aretxabaletako errepresaliatuen gaineko dokumentala egiten ari ginela, Ferrolera joan zen Juan Ramon [Garai]. Bueltan: ‘Begira, Julia, zer topatu dudan zuretzat’. Sumario bat zen: ‘Isidro Monge, Aretxabaleta...’ 1934ko iraultza garaikoa, aitaita kartzelara sartu zuten denborakoa. Familia Aretxabaletan zen orduan, baina fabrikak ixten hasi ziren eta aitaitak Madrilera egin zuen lan bila. Amamak, berriz, Arrasatera jo zuen bizitzera”.

ez diotela behar besteko garrantzirik ematen. “Aitaita-amamen kontu zaharrrak!”, esateko moduan. Desprestigio modu bat edo. Ez gara konturatzen bene-benetako gertaerak izan zirela, benetako haustura. Errepublikaren hezkuntza

ereduak aurrera egin izan balu, adibidez, orain baino askoz hobeto egongo ginateke. 40 urte egon gara zapalduta, ezer egiteko aukerarik gabe. Dokumentalean egiten genuen galderetako bat zen: “Zer esango zeniekete gazteei?”.

Eta?

Bat zetozen denak: “Jakin egin behar dute. Batzuek uste dute ez dela izan ‘hainbesterako’, baina ‘hainbesterako eta gehiago’ izan zen”.

René Cassin sariak eman zituztenean eza-gutu zintugun. Saria jasotzerakoan, hantxe zu, Josefa Berasategi, Luis Ortiz Alfau eta Josu Ibargutxirekin batera, norberaren eta Euskal Plataformaren izenean mintzo. Arduradun politikoen hitzak eta gero, aurkezleak zeuri egin zizun lehen galdera: “Zertan da kereila, zein unetan dago?”. Horixe jakin nahiko nizuke.

Euskal Plataforma 2009an hasi zen martxan, eta Espainiako Estatuko elkartearen barruan ari gara lanean. 1977ko Amnistia Legeak frankismoaren krimenak aztertzea galarazten du, tortura delituak, behartutako desagertzeak, exekuzio sumarioak... Hala ere, NBEen Giza Eskubideen Batzordeak, Amnistia Internazionalak eta Human Rights Watch erakundeek gizateriaren aurkako krimentzat jo ditu frankismoarenak, eta dio ez direla preskribitzen, zenbait gomendio egin dizkio Espainiako Gobernuari, baina honek 1977ko Amnistia Legea jartzen du aitzakia. Harresia da lege hori. Berez, kereila Argentinan hasi zen, Dario Rivas eta Ines García Holgadoreen salaketaren ostean, eta oraintxe, Euskal Herrian 130en bat kereilari ditugu. Adineko jendea da, ez dago Buenos Airesera hegazkinean sartu eta Servini epailearen aurrean deklaratzeko moduan. Batzuek hemen bertan egin dute deklarazioa, erregu bidez nahiz bideo-konferentzia bidez. 2014ko urrian, Buenos Aireseko epaitegiak hogeigun inputazioa egin zuen, baina Espainiako Gobernuak ez du ezer egin, oztopoak jarri baino, kereilak aurrera ez

ARABAKO BERTSOLARIAK
2016
ARTEKO A

MENDIALDEKO TOPAKETA KANPEZU
OTSAILAK 20, LARUNBATA
12:00etan **BERTSO-POTEOA**
Uxerri tabernatik hasita
14:30ean **BAZKARIA**
(10€) Herriko plazan
Izena emateko 635711019
16:30ean **BERTSO-HERRI KIROLAK**
Herriko Plazan
www.bertsozale.eus/araba

LIZARRATEKO TXARRONAK ZALDUNJO

BARTEROK GASTEIZ

LANTZAKO SORGINSTE

ARGIA

arabako bertsozale elkarteak
artepan
udapa
LABORAL
Vital

egiteko presioa egin. Justizia Unibertsala eskatu besterik ez zaigu geratzen, Jurisdikzio Internazionalaren babesarekin bakarrik ikertu eta epaitu daitezkeelako genozidio eta gizateriaren aurkako krimenak, estatu baten legeen gainetik dagoelako Justizia Unibertsala. Plataformaren hurrengo pausoa, berriz, izango da udalak kereilari izan daitezen saiatzeara. Hasi gara bilerak egiten, uste dugu herri eta hirietan gertatutakoa salatu behar dutela kereilaren bidez. Memoria elkarrekin datuak ditugu. Instituzioen inplikazioa derrigorrezkoa da. Horretan gaude. Azkena jakin dudana, Mexikon ere beste batek salaketa jarri duela.

Zenbait errepresaliatuk bat egin du kereilarekin, eta beste zenbaitek, aldiz, ez du mugimendu zirkinik egin. Ez du nahi izan. Akaso pentsatuko dute kereilak ez duela aurrera egingo, hortik ez dela ezer etorriko, ezinezkoa dela... Guk hasieratik dakigu gauza zaila dela, ibilbide luzekoa, balitekeela argirik ez ikustea, baina Carlos Slepoy abokatuak [Kereilari dagoz-kion gorabeherak Espainian zuzentzen dituen abokatu argentinarra] esaten duena: "Argentinan ere Azken puntuaren Legea atzera botatzea ezinezkoa zela pentsatu genuen, baina lortu genuen". Argentinan gauza bat izan zuten aldeko: urte gutxi igaro zirela krimenak izan zirenetik jendea mugitzen hasi zen arte. Errudunak bizirik zeuden. Hemen, aldiz, urte asko joan dira, eta errudunetako asko hilda daude.

Hilak eta biziak. Lehendakaritzako saio hartan Josefa Berasategik eta Luis Ortiz Alfauk euren egia kontatu zuten. Zein da zure egia, Julia Monge Sarabiarena? Hasteko, neure historiaren gauza batzuk banekizkiela sartu nintzen Intxorta 1937

Azken hitza: Apirilaren 24an

"Emakume errepresaliatua omenduko dugu: milizianoak dira batzuk, internazionalistaren bat edo beste ere topatu dugu -edo haren semea, Parisen-, erretaguardian egonak -erizain eta beste-, erbesteak ezagutu zuten gerrako umeak... Gerra garaia ez ezik, diktadura garaia ere aintzat hartu dugu, eta hor dira emakume torturatuak, fabrikako borrokan ibilitakoak, feminismoan jardundakoak... Apirilaren 24an izango da omenaldia, Elgetan".

.....
elkartean, gure aitaita-amamak erbestera joan zirela, handik bueltan lanik gabe geratu zirela. Esate baterako, aita zazpi urterekin eramane zuten atzerrira. Ordurako, aitaita desagertuta zegoen. Amamak ohiko periploa egin zuen: Arrasatetik irteten, Frantziara joan, Kataluniara gero, eta atzera Arrasatera itzuli, baina herrira bueltatu eta [Unión] Cerrajerako lanetik bota zituzten. Amamak ebanista lanak egin zituen, oso trebea omen zen. Horretan, itzuli eta zazpi urteko alabatxoa hil zitzaion amamari, eta bera ere, handik laster gaixotu eta hil egin zen. Gure aita eta beraren arreba geratu ziren bizirik. Amama ez nuen ezagutu, jakina, eta amamaren ahizpa Ursi izeko izan dut amamatzat. Maitagarria, Ursi, gauzak kontatzen zituena zen, baina orduan nik ez nion jaramonik egiten. Orain, aldiz, neure buruari esaten diot: "Bizirik balego!".

Zeure familiaren historia.

Beti izan naiz kontziente andreek zelan pasatu zuten gerra eta gerra ostea. Aitaita-amamak gazterik etorri ziren San Roman de Hornijatik (Valladolid, Espainia) Gasteiza. Ez daukat dudarik pobre baino pobreago izango zirela. Gasteizen ezkondu, hiru seme-alaba egin, eta orduan, gerra. Bilbora, Santanderrera, Frantziara, Tarrasara (Katalunia), eta Aretxabaletara. Jakin-go balute zertan nabilen orain, gerra sufritu zuen jendearen testigantzak biltzen!

Aktibistatzat aurkeztu izan zaituzte inoiz.

Aktibista ni? Feminismoan jardun dudalako lanean izango da! Eta memoria historikoa lantzeko garaian ere kontuan hartu behar duzu emakumea aparte gelditzen dela. "Denontzat ari gara", diote batzuek, baina ez da nahikoa nire ustez. Emakumearen borroka gerra denboran guztiz ezberdina izan da, ez du gizonaren borrokaekin ezer ikustekorik, baina borroka izan da: gainbizitza izan da, erresistentzia totala. Askotan izan gara Elgetan, lubakia txukuntzen, dena narras zegoenean. Elgetako Udalak hura garbitzea erabaki zuen, zati bat behintzat. Joan ginen batean, elurra, haize fina, hotza... goiza eman genuen Intxortan, eta bueltan, esan nien: "Berriro gerra etortzen bada, ni telefonozaina. Trintxeran ibiltzeko adinik ez daukat! Kar, kar...". Oso gogorra izango zen hura, dudarik ez, bertan zen heriotza, baina, bitartean, non ziren emakumeak, zer ari ziren? Nahitaezkoa da galdetzea, emakumeen zati hori ere kontatzea, baina kontatu egin behar da. Berdin-berdin tratatu behar dela uste dut nik. ■

10 URTE

DONOSTIA 99,2
 TOLOSALDEA 97,7
 GOIERRI 106,7
 BERGARA 100,2
 ARRASATE 106,1
 UROLA 107,7
 KOSTA 107,1
 BILBO 102,3
 DURANGALDEA 100,7
 OTXANDIO 90,4
 IRUÑERRIA 106,7
 GASTEIZ-LAUTADA 103,8

INFO 7 IRRATIA

ENTZUTEKOA DA KONTATZEKO GAUDE

Espainiako gobernagarritasuna (des)blokeatua

Hauteskundeak errepikatzea da Espainiako Gobernuako presidentek bere karguan mantentzeko daukan aukera bakarra. Kasu horretan litekeena da PPK Raxoy aurkeztu baino beste aukerarik ez izatea eta bide horretatik, Ciudadanosera ihes egindako botoen parte bat berreskuratuko balu, abenduaren 20ko garaipen motza luzatzeko abagunea izan dezake.

Beraz, printzipioz PP izan daiteke hauteskundeak errepikatzearen aldekoena. Beste alderdi nagusiek aldiz, badute hauteskunde berri batzuen aurrean beldurra izateko motiborik. Praktikan "bigarren itzulia" izango litzateke eta honen efektuak zein diren ondo dago neurtuta bi itzulietako hauteskunde sistemak dituzten herrialdeetan. Salbuespenak salbuespen, oro har, partaidetza igo eta bi alderdi nagusietara doan boto kopurua handitu egiten da.

Espainian bigarren itzuli kutsuko hauteskunde batzuk aztertzeke kasu bakarra Andaluziakoa da. 1994ko hauteskunde autonomikoak PSOEk irabazi zituen, baina gobernagarritasunerako Izquierda Unidaren (IU) babesa ezinbestekoa zuen. Ezegonkortasuna hain handia zenez, azkenean, 1996ko martxoaren 3an hauteskundeak egin ziren berriro: partaidetza %10 igo zen, batez ere sozialisten mesedetan. Ezkerreko akordioa ez babestu izanagatik eta boto baliagarriagatik zigortua izan zen IU.

Bigarren itzuli bat izango balitz, PPK eskumaren boto erabilgarria jasoko luke, baina ezkerrekoen artean ez dago lidergo argirik hori eskuratzeko. Andaluzian PSOEk 45 diputatu zituen eta IUk 20, aldea handia zen boto erabilgarria identifikatzeko. Oraingo Espainiako Kongresuan aldiz, indar aurrerakoi nagusiek atera dituzten boto kopuruak antzekoak dira (341.000 botoetako aldea sozialistentzat) eta diputatuetan distantzia ez da hain handia, 90



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Ezkerreko gobernua osatzen ez bada, hautesleek errudun bezala izendatzen dutena izango da galtzailea ezkerreko lidergoaren borrokan. Beldur horrek eraman ditzake Podemos eta PSOE akordio batera ailegatzera. Horrela balitz, hasieran ibilbidea izango lukete PPK martxan jarri dituen lege eta erreformak atzera botarazteko

sozialistentzat eta 69 Podemos eta bere aliatuentzat. Horri erantsi dakioke IUk atera dituen ia miloi bat botoren ehiza-eremuan Podemosek bere alde mobiliza dezakeela boto baliagarria.

Lehia estuak zaildu egiten du politika publikoetan aliatuak izan daitezkeen alderdien arteko akordioa, izan ere, baliabideen banaketan (boto/kargu/botere) arerioak dira. Ondorioz, borroka negoziazioen narrazioan dago. Ezkerreko gobernua osatzen ez bada, hautesleek errudun bezala izendatzen dutena izango da galtzailea ezkerreko lidergoaren borrokan. Beldur horrek eraman ditzake Podemos eta PSOE akordio batera ailegatzera. Horrela balitz, hasieran ibilbidea izango lukete PPK martxan jarri dituen lege eta erreformak atzera botarazteko: Mozal legea, LOMCE, lan erreforma, abortuaren legea eta gastu publikoari muga jartzen dion Konstituzioaren 135. Artikulua (azken hau PSOEk bultzatutakoa).

Halere, jakina da botere faktikoen eta hauen esanetara dauden sozialisten partetik erresistentziak izango direla. Alternatiba, ordea, ez da erraza. Erregimenaren defentsa burutuko lukeen koalizio handi bat, esplizitua edo mozorrotua, aukera hau oso arriskutsua litzateke PSOErentzat, izan ere, desgaste handia sufritu eta ezkerreko erreferentzia nagusia izateari uzteko aukera asko lituzke. Horregatik, alderdi sozialistentzat kostu txikiena lukeena PSOE eta Ciudadanosen arteko akordio bat izango litzateke PPren abstentzioarekin. Baina puntu horretara iritsi ahal izateko, alde aurretik PPK eta botere faktikoen ikusi eta sentitu beharko lukete ezkerreko koalizio bat posible eta sinesgarria izan daitekeela. Orain arte Pedro Sanchezek ezkerreko koalizioari keinu batzuk egin dizkio, Portugalera eginiko bisita bezalakoa, baina gobernuako presidente izan nahi badu, gehiago egongo dira. ■

Zordanaz

Behin bazen mundua banatzen zuen marra garbi bat, *Lurreko kondenuatuak* alde batean baitzeuden erabat. Aspaldi honetan marra bihurritzen hasi dela badirudi, espiralak egin arte. Eta orain, etorkin eta errefuxiatuen anfitrioi izatea tokatzen denean, on da 1936ko gerlatik ihes joan zirenak gogoratzea, baita etorriek sexu berdintasunaz dituzten ideiek gogaitzen gaituztenean ere.

Arazismoa sustatzeko erabiltzen dira arrotz batzuen jarrerak, eta Koloniako gertaerak. Edo arrazismoaren aurka jotzeko gutxiesten dira: ororen buru, hemen ere txakurrak ortozik eta matxismoa nonahi berdintsua. Ez ba! Emazteen zampaketa ez da mundu guztian maila berekoa; borrokatuz lortu diren aurrerapenak ez dira arbuatzeokoak, ez eta ahaztekoak erresuma batzuetan usadioz eta legez onetsiak diren praktika sexistak. Salbu pentsatzen bada sexismoaren larritasuna baloratzeke orduan egokia dela neurgailu desberdinak erabiltzea: nolako azala halako minbera, guretzat jasanezina haientzat eramangarria... eta ikuspegi horretan ez dela arrazismorik.

Edozein ohitura eta erlijioaren gainetik, oinarritzko Jende Eskubideak unibertsalak direla usteko arrazoi asko



Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Mendebaldean bezalaxe, Ekialdeko feminista anitzek salatu dute beren kulturak eragiten duen menderakuntza, baita haren sinboloen erabilera ere

badira, eta emakume askok badakite. Hirugarren Munduan eskubide horiek dituzten hastapenak eta erroak ikertu ditu Kumari Jayawardena srilankarrak, eta iazko bukaeran hil den Fatima Mernissi marokoarrak gogorarazten du feminismoa deskolonizazio mugimenduekin batera ibili dela.

Mendebaldean bezalaxe, Ekialdeko feminista anitzek salatu dute beren kulturak eragiten duen menderakuntza, baita haren sinboloen erabilera ere. Wassyla Tamzali aljeriarrak penaz ikusten du nola bideratu duen ezkerak beloari buruzko eztabaida, haren iritziz sumisioaren adierazle eta sustatzaile den janzkera bat ezin delako askatasunaren erakusle izan, ez boluntarioa denean ere. Emakumeen gorputza ideologian eta politikan nola erabilia den nabarmendu dute feminista horiek, eta ez dute ulertzen zergatik hemen babes-tu behar diren han berek deitoratzen dituzten jokaera zapaltzaileak.

Zergatia bada, bai, eta ez hutsala: haien ohiturak arbuatuz, jadanik baztertuta daudenak are gehiago baztertzeko arriskua dugu. Gainera, haien zordunak gara, jendarte aberatseko biztanle garen neurrian. Eta galderak: nola izan liteke kitatzeko txanpona funtsezko eskubideen ukapena onartzea. *Zordana* da ordaintzekoa, ez *zorrezta*; haien onak gureganatu eta gure onena eman, xenofobia elikatu gabe kultura desberdinen arteko erreka leunduz, berdintasuna bilatzen badugu. Erraza ez da, baina ez Europan autoktonoen bortxakeriaren aurkako manifa masiboak antolatzea baino nekeagoa, kuantu! ■



Liburu azoka

Mungian, otsailaren 26tik martxoaren 6ra Matxin plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Akordio usaina



Mikel Irizar

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA
BERDINTASUNEN
ZUZENDARIA
@mirizarberdin

Tokatu zait mahai luzean euskararen erakunde eta eragile mordoa bilduta egotea etorkizunaren usnan, eta amaieran oso ados etortzea guztiak analisi partekatua jasotzen duen testua osatzeko proposamen, ekarpen, ñabardura eta abarrekin.

Tokatu zait aldundi baten ekitaldi ospetsuan euskaltzale omenduak aldarrikatzea euskararen gaineko itun politiko eta soziala, eta erakunde-ko agintari gorenak ekitaldi berean erantzutea modu solemnean prest dagoela helburu horiei gizarte eragileekin lankidetzan ekiteko.

Tokatu zait askatasuna, berdintasuna eta justizia oinarri dituen diskurtsoarekin agerraldia egitea erakunde legegilean eta alderdi guztien onespina jasotzea, bakoitzak bere azpimarrarekin.

Tokatu zait hilabeteotan hizkuntza normalizazioan ardura duten eragile eta erakunde ia guztiak luze solastea prozesuaren beraren orainaz eta etorkizunaz, eta nabaritu dut haiengan antzeko ikuskera zalantzata eta lankidetzarako prestutasun osoa.

Eta tokatu zait hizkuntzaren esparruan eztanda egin zezakeen lehergairen bat desaktibatze bitartekari lanetan ibiltzea, eta harridura atseginaz aurkitu ditut espero gabeko malgutasunak eta akordiorako jarrerak.

Euskaltzaleen Topaguneko presidente izan nintzen garaian (2012-2014) gogotsu aldarri-

katu nuen aro politiko berria baliatu beharra euskaltzaleon artean gatazka politikoak eragindako lubakia gainditzeko, eta lankidetzari berriak eraikitze; beti ere pentsatuz indarrak biltzea ezinbestekoa zaigula euskararen aldeko lanean.

Aldarri bera egin dute han eta hemen eragile eta hainbat talde azken urteotan. Eta esango nuke iritzi publikatuan ere nabarmen ari direla nagusitzen zalantza partekatua eta jauzi aurreko tentsioa, iraganeko heterokritika muturrekoen aldean. Horrez gain, jarreraren gaineko ikerketa berriek ere diote bi herenetik gorako onarpen soziala dutela hizkuntza berdintasuna helburu duten estrategiek.

Honenbestez, baldintzak ikusten ditut urrats zehatzetarako. Niri dagokidanez, Gipuzkoako Foru Aldundian hizkuntza zuzendaritzaren plan estrategikoaren lanketan gizarte eragileek parte hartu dute eta, aurrera begira, partaidetza prozesu bat proposatuko diegu hurrengo asteetan, berrikuntza palankak elkarrekin identifikatzeko. Galdera nagusiak izango dira: zer beste egin behar dugu euskalgintzan eraginkorrak izateko? Nola berreskuratu iraganeko hazkunde erritmoak normalizazio prozesuan? Eta erantzunen arabera joango gara zuzendaritzako aurrekontua moldatzen. Izan ere, hizkuntza berdintasuna helburu politiko eraldatzailea da, gizartearen hobetzen duten horietakoa. Behar eta merezi du politika adostua, sendoa, arnas luzekoa. ■

Itxaropena (II)



Oihana Etxebarrieta

KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Itxaropentsu nago. Emakume baten aurkako kanpaina sexista hasten denean, elkartasun feministak martxan jartzen da. Adibidez, CUPEko emakumeek emandako erantzuna azpimarragarria iruditzen zait. Queerrekin edo bollerekin egin bezala, jasotako mespretxu eta hitz itsusiak haienak egin eta lanean jarraituko dutela esan zuten. Irain horiek pertsonaletik atera, eta duten izaera politikoa azpimarratzeaz gain, jarrera politiko argi bat utzi zuten mahai gainean. Badugu zer ikasia.

Zirraraz beterik nago. Angela Davis izan dugu gurean, eta bere ekarpen aparta entzuteko aukera ikaragarria izan bada ere, barruak mugitu

dizkit haren inguruan sortutako eztabaida eta foro ezberdinetan atera den diskurtso feministak entzun ahal izateak. Bazterretan egon diren identitate horiek gure politikaren eta subjektu eraldatzailearen erdigunean egon behar dutela entzun diot gazte bati, feminismoa gizarte ongizatearentzako bermea dela sindikalista bati, norbere buruaren eta taldearen zaintza ardura politikoa izan behar duela feministak bati. Eta hori guztia txalotzen zuen eta aurrera eramanez nahi duen jendearen ilusioarekin sentitu dut. Orain, ideia hauek guztiak eraikitze momentua da eta zuekin batera bidean izango nauzue. ■

SUPERMERKATUAN MOLDATZEKO GIDA

Izaskun Berasategi Zabalza nutrizionista da, kontsulta du Iruñean eta elikadurari buruzko tailerrak ematen ditu Nafarroako ikastetxeetan. Jango duguna erosterakoan arreta zertan jarri behar dugun aholkatu digu, kontsumo arduratsua eta kritikoa egin nahi badugu.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

ETIKETAK

Osagaiak nola irakurri

E hizkiz adierazitako elementu famatuak, jakiaren oinarritzko osagaiei gaineratutako gehigarriak dira. E nagusiak koloratzaileak (E100-180 artean daudenak), kontserbatzaileak (E200-290), antioxidatzaileak (E300-321) eta testura-eragileak (E322-483) dira. Araututa daude eta arauak dio ez direla kaltegarriak edo ez behintzat kopuru horietan, baina E horietako asko nahiko berriak dira eta ez daude erabat ikertuta: “Gero eta gehiago erabiltzen dira, pilatzen doaz gure gorputzean eta hainbat kasutan ez dakigu hemendik urte batzuetara zein eragin izan dezaketen gudan. Horregatik, E hauek guztiak zenbat eta gutxiago kontsumitu, hobe”, dio Berasategik. Halakoak saihesteko modu errazena, elikagai freskoak hartzea, “baina maiz kontsumo erraza hobesten dugu, eroso eta ahalegin gutxi eskatuko diguna, eta adibidez erosketak hilean behin

baino ez baditugu egin nahi, erositako produktuek kontserbatzaileak izango dituzte ezinbestean”. Gehigarri hauek hainbat gurean onartuta dauden arren, debekatuta dituzte Europako beste herrialde batzuetan. Areago, zenbait kasutan enpresak ez daude behartuta etiketan horien berri ematera, kopuru jakin batera iristen ez badira.

Etiketak irakurtzeko denbora hartzea, konparatzea eta sen onez jokatzeko da Berasategiren aholkua: urdaiazpikoa erostera joan eta osagaien artean esnea duela ikusten badugu –esnearen proteina haragiarena baino merkeagoa izanik berau erabiltzen dutelako hainbat urdaiazpikotan–, ez dirudi oso urdaiazpiko gomendagarria. Edo jogurtagandik zer espero behar dugu? Bada, hiruzpau osagai izatea: esnea, bakterioaren bat esnea fermentatzeko, koloratzaileraren bat... eta beraz jogurt horrek hamabost osagai baditu, ezin du ona izan. “Hamar osagai edo gehiago dituztenak saskitik



ken ditzakegu. Zenbat eta osagai gutxiago, hobe”. Osagaien ordena ere inportantea da, kopuru handienetik txikienera jartzen direlako etiketetan, eta ez da gauza bera ikustea adibidez azukrea osagaien zerrendan bigarren, edo bukaera aldera.

Osagaien zerrenda beltza egiteko ere eskatu diogu nutrizionistari. Ahalik eta urrunen mantendu behar omen ditugu glutamato monosodikoa, trans gantzak, palma olio, azukrea larregi, irin findua (errefinatua), gatz findua, koloratzaile, kontserbatzaile eta edulkoratzaile artifizialak, nitritoak eta sulfitoak. Osagaiok prozesatutako elikagaietan ageri dira gehienbat (*fast food* delakoa, bolleria, hestebeteak...).



GANTZAK

Trans-ak eta kolesterolaren paranoia

Gantz edo koipeetan hiru mota nagusi daude: asegabeak edo insaturatuak (oliba-girasol-arto olioan aurki ditzakegu, fruitu lehorretan, arrain urdinean, ahuakatean...), aseak edo saturatuak (urdaian, patata frijitueta, bolleria industrialean, haragian, koko eta palma olioan...), eta trans gantzak (gurinean, patata frijitueta, bolleria industrialean, txokolatean, aurrez prestaturiko jakietan...). Trans gantzak dira hidrogenazio prozesu bidez ase bihurtu dituzten gantz asegabeak, eta patologia eta gaitasun ugariaren sortzaile izaki, erabat saihestu beharrekoak dira. Espainiako Estatuan oraindik ez da derrigorrez-

koa trans gantzak erabili direla adieraztea –zenbait herrialdetan debekatuta daude–, baina etiketan “gantz partzialki hidrogenatuak” jartzen badu, trans gantzak dituen seinale. Gainerakoan, asegabeak dira gantzik gomendagarrienak: kolesterol ona igotzen eta txarra jaisten laguntzen dute. Azken urteotan kolesterolak protagonismo handia hartu duen arren, Berasategirentzat ez da hain faktore erabakigarria: “Kontua ez da hainbeste barneratzen dugun kolesterol, baizik eta gure gorputzak osotasunean egiten duena, ariketa egiten dugun, adibidez. Analisisetan, gero eta txikiagoa da jartzen diguten muga, 240tik 220ra eta 200era ere jaitsi dute. Eromena da, azkenean denok izango dugu kolesterol!”.

LIGHT

Ez da osasuntsuagoaren sinonimo

Light jartzeak esan nahi du produktu arruntak (*light* ez den produktu balioki-deak) baino gutxienez %30 kaloria gutxiago dituela, baina azukre edo gantz kopuru bera izan ditzake. Adibidez, gantzak kaloria asko dituenaz, *light* izan dadin gantza kenduko diote jakiari, baina zaporea orekatzeko produktu arruntak duena baino azukre gehiago botako diote (gantzak baino kaloria gutxiago dituelako), edo edulkoratzailez beteko dute, kopuru txikiagoarekin azukrearen gozotasun maila lortzen duelako. Edulkoratzaile edo gozagarri asko hartzen ditugu eta nahiko berriak dira; duela gutxi diabetikoengan ikusi da, esaterako, azukrearen

efektu berak sortzen dituela gorputzean –azukrea kendu eta gozagarriak hartzea diabetikoentzat soluzio zela uste zuten-. Berdin “gantz gutxikoa” edo “gantzik gabea” jartzen duen produktuekin: zaporea orekatzeko, gatz, azukre eta almidoi asko izan ohi dute. Kaloririk edo gantzak gutxitzeak ez baitu esan nahi, inondik inora, jakia osasuntsuagoa denik. Alderantziz: AEBetan, azken urteetan gantzak gutxitu dituzte, obesitateari, diabetesari edota hipertentsioari aurre egin nahian, baina gora egin dute gaitzok, eta arrazoi nagusia azukrearen kontsumoa dela dio aditu ugari.

AZUKREA ETA GATZA

Gaindosiak jota

Azukre gehiegi kontsumitzen dugu, eta gorputzean azukre gehiegi pilatzen badugu eta berau erretzen ez badugu, kalte egin diezaioke gure osasunari. Arazoa da gaur egun produktu askori gehitzen diotela azukrea, prozesu kimikoa jasan duen eta kaloriak baino ez dituen azukre findua. Beste behin, etiketak sen onez irakurtzea gomendatu digu nutrizionistak: urdaiazpikoak azukrea du? Ez. Bada, ikusten badugu urdaiazpikoak azukrea duela –eta sarri badu–, beste bat erosi. Zenbait jakik azukrea berezkoa dute, frutak esaterako: azukre naturala da, ez findua, eta ez da azukre hutsa, bitaminak, zuntza... ere badituelako. Gure gorputzak ez du azukre gehigarriarik behar, elikagaiek beraiek naturalki ematen digutenarekin nahikoa dugu. Nola jakin azukrea berezkoa edo gehitua den? Erraz, osagaien zerrendan azukrea agertzen bada, horrek esan nahi du azukre findua gehitu diotela. Aldiz, taula nutrizionalean beti agertuko da azukrea, jakiak berezkoa nahiz gehitua izan: karbohidratoen barruan esango zaigu horietatik zenbat diren azukre, eta kopurua zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta hobeto. Bestalde, edari eta abarrei botatzeko azukrea hartu nahi izanez gero, panela da egokiena: kanaberatik zuzenean hartutako azukrea da, inongo prozesu kimikotan findu gabea, eta mineral eta bitaminaren bat baduena.

Gatza ere arretaz begiratzea komeni, Osasunaren Mundu Erakundeak egunean 5 gramo baino gutxiago hartzea aholkatzen baitu, eta batez beste bi koitza kontsumitzen dugu. Kontserbek edota aurrez prestatutako elikagaiek, denek dute gatza. Sodioa eta potasioa bi



mineral dira eta bien arteko oreka mantendu behar du gure gorputzak; gatz asko eta ondorioz sodio asko hartzen badugu, potasioarekiko desoreka emango da (tentsioan, bihotzean edota gorputz barneko likidoetan eraginez).

INTEGRALA

Ale osoa, zuritua baino hobea

Integral hitza argaltzeko kontuekin lotzen duenik badago ere, integral izateak esan nahi du zereala edo hazia osorik mantendu dela, zuritu edo findu gabe, eta beti ere, hobea da ogia, arroza, galletak... oro har zerealdun elikagaiak integralak hartzea, kanpoko geruzak zuntza ematen digulako –oso gutxi hartzen duguna–, hainbat bitamina eta mineral azal horretan baino ez daudelako, eta naturala delako, azala kentzeko prozesutik salbu. Zer da, baina, elikadura enpresek hainbatetan egiten dutena? Zuritutako zerealdun produktuari birrina botatzen diote gainetik (zereal-alearen azal xehatua) eta integrala dela jartzen dute. Halako aldrebeskeriak saihesteko, “ale osoa” jartzen duen jakia hobetsi.

ARRAUTZAK

Oiloen hazkuntzaz informazio zehatza

Kaxan begiratu: lehenengo zenbakiak dio nola hazi duten oiloa (0 zenbakiak produkzio ekologikoa adierazten du, 1ak basa-oiloak direla, 2ak lurrean hazitako oiloak, eta 3ak kaiolan hazitakoak); ondorengo bi hizkiek herrialdearen berri ematen dute (FR esaterako, Frantzia

litzateke); eta ondorengo zortzi zenbakiak probintzia eta herria azaltzen dituzte.

HARAGIA, ARRAINA, BARAZKIAK, FRUTAK

Denda txikien bermea

Produktu freskoak erosteko, konfiantzazko denda txikietara jotzea gomendatu digu nutrizionistak, horietan errazagoa delako jakitea produktua non izan den ekoitzia, sasoikoa al den edota zenbat denbora daraman saltokian. Adibide bat: “Maiz, azkar hazitako fruta lehenesten dute supermerkatuetan, itxura polita izan dezan, baina gero ez dauka ez bitaminarik, ez zaporarik, ez ezer. Ikerketek diote denda txikietako laranjek supermerkatuetakoek baino D bitamina gehiago dutela, denda txikietan astero joango direlako laranjak eroatera, baina supermerkatu handietan, lekua badutenez, berde daudenean hartu –berde dagoen frutak ez du bitaminarik, ez du denborarik izan prozesu osoa egiteko– eta gordeta izan ditza-kete denbora luzez”. Bestelako oharra ere egin digu Berasategik: gomendatzen dena baino hiru bat aldiz haragi gehiago jaten dugu.

ESNEA

Uste faltsuak

Berasategiren hitzetan, beste behin ere osagaiak dira gakoa. Esneak zer izan-go du? Bada, esnea, ez du ezer gehiago behar, eta beste hoge osagai baldin ba-

ditu, ez da oso fidagarria izango. Gantz aldetik (osoa, erdigaingabetua, gaingabetua), pisu edo bestelako arazorik izan ezean osoa aholkatu du nutrizionistak, “ez dagoelako zertan gantza kendu”. Eta bertakoa eta baserrikoa bada, “askoz hobeto”. Behia nola zaindu duten, ekoizpena zein izan den edota etxaldea nola den jakiteko, esne-markak lan nola egiten duen ezagutzea izan daiteke bidea. Esneak luzeago irauteko, UHT edo uperizazio prozesua jasaten du (tenperatura aldaketa handian oinarritutako tratamendua), eta bitaminaren bat edo beste baino ez du galtzen. Entzun izan da, diosku nutrizionistak, iraungitako esnea berriz ere fabrikara eramane eta UHT prozesutik pasatzen dutela bigarrenaz salgai jartzeko, “baina gezurra da, besteak beste esne berria ekoiztea baino garestiagoa aterako litzatekeelako”.

OGIA

Zenbateraino perbertitua?

Ogiaren kalitatea gero eta zalantzarriagoa dela dio Berasategik. “Supermerkatuetako ogietan, sikiera, daramatzan osagaiak irakur ditzakezu etiketan, baina okindegiko ogiekin kezka sortu da, merkeagoa izateko hainbatetan kalitate eskaseko irina erabili eta orekatzeko osagai asko botatzen diotelako (azukrea, gatza, zapora-emaileak...)”. Arratsaldean bero-bero hartzen dugun ogia, hozkailutik masa atera eta labean sartu berri dutena, “hori da okerreana, aurrez prestatua izanik kontserbatzaile asko dituelako. Eta berdin etxean berotzeko supermerkatuan saltzen den masarekin”. Hurrengo egunean oso gogorra geratzen den ogia, saihestea komeni: “Etxean egindako ogiak astebete iraun diezazuke eta ez da gogorra jarriko, atera kontuak”.

ZERREDA BELTZA

Freskagarriak, zukuak, jaki prozesatuak eta aurrez prestatuak

Berasategik ez du gustuko inori jakirik debekatzea, baina arestian osagaien zerrenda beltza egin digun moduan, produktu batzuk ere zenbat eta gutxiago hartu, hobeto. Freskagarriak adibidez, izugarritzko azukre pila baino ez daukate –gasa izatea ere ez da gomendagarriena. Zuku industrialek berdin: azukre asko dute –edo azukrerik ezean edulkoratzaileak– eta normalean, frutak zituen bitaminak galdu egin dira bidean,



Osagaien ordena inportantea da, kopuru handienetik txikienera jartzen direlako etiketan, eta ez da gauza bera ikustea adibidez azukrea osagaien zerrendan bigarren, edo bukaera aldera.

» Jogurtagandik zer espero behar dugu? Hiruzpalau osagai izatea; hamabost baditu, ezin du ona izan. “Hamar osagai edo gehiago dituzten produktuak saskitik ken ditzakegu”

zukua kontserbatzeko jasaten duen prozesu termikoan. Aurrez prestatutako jakiek ere nutriente ugari galtzen dituzte bidean, eta osagai pila bat izaten dituzte, kopuru handitan: gantzak, gatza, azukrea... Eraldaketaren bat izan duen haragia da haragi prozesatua (gatzetan

» *Light* edo “gantzik gabea” dioten produktuetan, zaporea orekatzeko gatz, azukre eta almidoi asko erabiltzen da. Kaloriak edo gantzak gutxitzeak ez du esan nahi osasuntsuagoa denik

jarria, ketua, txorizo bihurtua...) eta zalaparta handia sortuz Osasunaren Mundu Erakundeak iaz azaldu zuenez, beronen kontsumoa murriztea da onena, prozesatzeko erabili ohi diren osagaien kopurua dela-eta (berriz ere azukrea, gatza, trans gantzak...).

ADI**Ez zaitzatela engaina**

Light, gantz gutxiko, integral edo parzialki hidrogenatu bezalako kontzeptuak irakurtzerakoan kontuz ibili behar dugula argitu dugu jada. Produktua osagai jakin baten “iturri” dela, osagai horretan “aberats”, edo osagai horren “kopuru altua” duela badio, halakoak jartzeko produktuak bete behar dituen baldintza eta portzentajeen zerrenda Europar Batasunaren Adierazpen Nutrizionaletan aurkituko duzu. Gogoan hartu Espainian/Frantzian/Euskal Herrian “ontziratu” jartzeak ez duela esan nahi bertan ekoitzia izan denik, edota garai batean modan jarri ziren elikagai aberastuak beti ez direla eraginkorrak: omega 3ekin edo kaltzioarekin aberastua, D bitamina duen esnea... eta hala koetan, batzuetan gure gorputza ez da gai elikagaiari modu artifizialean gehitu zaizkion osagarri horiek xurgatzeko eta baliatzeko; hortaz, hartu bezala aterako da gure gorputzetik, inongo eraginik gabe. “Dieta orekatua eramaten badugu, bitamina eta mineral gehienak modu naturalean hartuko ditugu eta ez dugu gehigarririk beharko. Baina horretarako dieta orekatua eraman behar da...”.

ALERGENOAK**Osagai saltsa, kontrolatzeko zaila**

Elikagaiak 14 alergenok nagusietakoren bat izanez gero –edo izateko arriskua–, adierazi beharra dago. “Egun, elikagai askok osagai pila bat dituzte eta nekeza da hori guztia kontrolatzea. Ezin duenak esnea hartu, lehen ez zuen esnekirik hartzen eta kito, baina orain urdaiazpikoa jaten badu, agian esnea izango du!”. Aurrez kozinatutako produktuek adibidez, hainbeste osagai dituzte, ezen batzuetan ez da batere lan samurra alergenok identifikatzea.

BEGIRADA KRITIKOA**Zer jan, hura izan**

Egunean zenbat otordu egiten ditugun aintzat hartuta, jaten dugunarekin ikuspegi kritikoa izatea funtsezkoa iruditzen zaio nutrizionistari. Carlo Petrini Slow Food fundazioaren sortzaileak ARGIA esan zuen moduan, jatea ekin-tza politikoa da, “aukera politikoa”, eta argi du bere aukera Petrinik: “Ona, garbia eta justua jateko eskubidea” aldarrikatzen du. Izaskun Berasategik ere ez du zalantzarik: gutxien kozinatuta



NICOLE ABALDE

“Ona, garbia eta justua jateko eskubidea” aldarrikatzen du Carlo Petrinik. Aurrez gutxien kozinatuta dauden gauzak erosi, freskoak, eta norberak prestatu. Horra Izaskun Berasategiren gomendioa.

» Ogi zuriari gainetik zereal-alearen azal xehatua bota eta integral gisa saltzen dute. Halako aldrebeskeriak saihesteko, “ale osoa” jartzen duen jakia hobetsi

dauden gauzak erosi, freskoak, eta norberak prestatu ditzala. “Denbora eta ahalegin gehiago eskatuko digu, dena berehala eta eroso lortzeko egungo bizimoduarekin talka egiten du, baina kalitatea hobea izango da eta erosten dugunak zer daraman jakingo dugu”. Gero eta gehiago dira bide hori aukuratu duten herritarrak: lekuan lekuko kontsumo taldeak ugaritzen ari dira, baratzea gero eta leku gehiago ari da hartzen gure herrietan, eta kontsumo arduratsurako aholkuak ematen dituzten elkarteak asko dira (Adentra nafarra kasu). Eta zer da kontsumo arduratsua? Jasangarria –Europar eta AEBetan, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, edo, beste era batera esanda, erosten dugunaren erdia botatzen dugu zaka-

rretara–; berdea –ingurumena ahalik eta gutxien kaltetuko duen ekoizpen eta garraio ereduetan oinarritua, hondakin gutxi sortuko duena eta birziklagarria–; etikoa –prekarietatea bultzatzen ez duten enpresetan egina–; eta soziala –ekonomia sozialeko enpresetakoak, bertako ekoizle eta bitartekariekin lan egiten dutenak eta inguruko ekonomia bultzatzen dutenak–.

Kafea, infusioak... erosten ditugunean, bidezko merkataritzaren zigilua daramaten produktuak kontsumo arduratsua- ren berme ona dira. Ekologikoa ere zigu- lu fidagarria da –lehen ez bezala, gaur egun bio edo organiko ziguiluak ekologikoaren sinonimo dira–, produktuak ez direlako tratatuak izan naturalak ez diren inongo pestizida edo produktu kimikorekin, eta naturaren zikloak errespetatuz lan- datuak edo haziak izan direlako. Baina jatorria begiratzea ere inportantea da, ekologikoa izanagatik lekutan ekoitzi den elikagaiak garraio eredu jasangaiz- ta baitu atzean; ez alferrik merkantzia ahalik eta merkean garraiatzen du des- lokalizazioaren politikak, kamioiz bete- tzen ditu munduko errepideak eta barku erraldoiez itsasoak. “Produktio Integra- tua” edo “Nekazaritza Integratua” ziguilua ere bada nolabaiteko bermea: ekoizpen ekologikoaren eta industrialaren artean, animalia, ingurumen, lur eta paisaiare- kiko ardura eta konpromisoa ziurtatzen ditu. ■

GIZARTE PROIEKTUETAN 21.700 ORDU URTEAN



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria



Ner Group taldean daudenek euren lan-denboraren %2 gizarte ekintzetan inbertitzen dute; 2015ean 34 proiektutan hartu zuten parte. Irudian, Ner Zuhaitz Egunean bolondresak lanean. ARGAZKIA: LURGAIA FUNDATZIOA



NER GROUP

- **Programa:** Gizartearekiko konpromisoa.
- **Helburua:** Proiektu sozialetan agente aktibo izatea, ingurune jasangarri eta bidezkoagoaren bidean.
- **Taldea:** Ner Group-eko 21 enpresa-proiektuk hartzen dute parte.
- **Inbertsioa:** 431 langile, 21.700 ordu.

Ner Group. Koldo Saratxaga. Irizar. Kooperatibagintza. Nahikoa ezagunak zaizkigu izenok, ezta? Ez nator Ner Group-en historia eta Saratxagaren ibilbidea kontatzera. Bai, ordea, talde horretan egiten duten "Gizartearekiko konpromisoa" programa azaltzera. Motzean, guztien artean gizarte-ekintzarako proiektu batzuk aukeratzen dituzte urtean, eta langileek beren lan-denbora bat inbertitzen dute bolondres lanetan.

Proiektu sozialetan urtean langile bakoitzak bere lan-denboraren %2 inbertitzen du, Ner Group-en xedea baita giza garapen jasangarri eta bidezkoagoa lortzeko bidean honelako proiektuetan aktiboki parte hartzea. Horrela azaldu digu Juanje Anduagak, Ner Group-eko Gizartearekiko Konpromisoaren koordinatzaileak. Ner taldea osatzen duten 21 enpresa-proiektuk parte-hartze prozesu baten bidez aukeratzen dituzte urteko proiektuak.

Aukeraketa prozesua

Idea proposamena Ner Group-eko edozein pertsonak edo taldek egin dezake, eta hasteko, proposatzaileekin bezala proposatutako eragileekin zenbait bilerak egiten dira proiektua ezagutu, aztertzea, eta ahal bada oinarri batzuk finantzatzeko. Lehen fase horretan aurrera egiteko honako irizpideok markatzen ditu enpresa-taldeak: informazio nahikoa izatea koste humano eta ekonomikoa kalkulatu eta bideragarritasuna aztertzea; giza-eskubideak, kultura,

hezkuntza, osasuna, zaintza, ingurumena, harremanak edo garapen jasangarria bultzatuko duten gizarte-ekimenak bezalako gaiak lantzen dituzten programak izatea; jasangarritasuna, parte-hartzea eta duintasuna bermatzea; giza-baliabideak baliabide ekonomikoak baino beharrezkoago dituen lehenestea; dependentzia ekonomikoa sor dezaketen proiektuak saihestea, baita ekarpen ekonomiko handia eta iraupen luzekoa behar duten ikerketa proiektuak ere.

Irizpide horiek kontutan izanik eta proposamenen lehen azterketa eginda, Gizartearekiko Konpromiso lantaldean 21 enpresetako ordezkariak daude bertan proiektu posibleen zerrenda egiten da. Ondoren hilabeteen enpresa bakoitzeko langile guztiei tokatuko zaie zein proiektu babesten duten eta bakoitzean lanerako prest zenbat langile bolondres dagoen esatea. Hurrengo bilerara lantegi bakoitzeko ordezkariak beren proposamenak eramaten dituzte, eta han erabakitzen da datorren urteari begira zein gizarte-ekintzatan parte hartuko duten. Enpresa-proiektuen gehiengoak babesten dituenak.

Behin erabakia hartuta, langile bakoitzak aukeratzen du bere lan-orduen %2 zein proiektutan inbertitu. 2015ean 34 proiektu sozialetan hartu zuten parte, hala nola, heziketa eta baliotransmisioa; gizarte-bazterketaren arriskua; edo ezgaitasun intelektual eta funtzionala oinarri zituzten gizarte-ekintzetan. ■

AP-8ko bidesarien igoera

BIZKAIKO ERREPIDE SAREKO AJEEN AZKEN SINTOMA

AP-8 autobideko urte hasierako tarifa igoerak erantzun sendoa eragin du Bizkaian. Durangaldeko herritar talde batek ordainsariak kentzearen aldeko plataforma sortu eta sinadura bilketa abiatu du change.org webgunearen bitartez; 12.000 baino gehiago bildu dituzte dagoeneko. Aldarrikapen horren ildotik, Bizkaiko errepide sarearen kudeaketari buruzko eztabaida piztu da. Besteak beste, AP-8ak ematen dituen irabaziak gestio desegokiaren ondorioz sortutako “zuloa” estaltzeko baliatzea leporatu dio EH Bilduk Aldundiari.



Unai Brea
@unaibrea

Iazko abenduan, Bizkaiko Aldundiak AP-8 autobideko bizkaitar tartean ordainsariak handitzea erabaki zuen; batez beste, %2,5. Neurriak sutan jarri zituen Durangaldeko herritar asko, baita berehalako erreakzioa eragin ere. Egun gutxian, igoeraren aurkako protesta moduan hasi zena Bizkaian AP-8ko bidesari guztiak ezabatzea eskatzen duen aldarri bihurtu zen. Doakotasunaren aldeko plataforma sortu eta milaka sinadura batu dituzte dagoeneko; 12.000 baino gehixeago, hau idazteko unean.

“Autobideak Bizkaian dituen ordainleku bakarrak Durangaldekoak dira”, dio Juan Carlos Poderosok, A-8 Peajerik Ez plataformako kideak; “Durangaldeko eta Lea-Artibaiko herritarrak diskriminatuta daude gainerako bizkaitarren aldean”. Poderosoren esanetan, ordainsarien gaiak sentiberatasun handia eragiten du Bizkaiko ekialdeko eskualdeetan. “AP-8a da herrialdean ondoen dabilen negozioetakoa, iaz 30 milioi euro baino gehiago irabazi zituzten”.

1.152 milioi irabaziak 2035 bitartean
Zehazki, eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuei erreparatuta, 2015ean 33 milioi eurokoa izan zen ohi-

ko jardueragatik lortutako sarreraren eta gastu arrunten arteko aldea. Baina horri ezohiko inbertsioak gehitu behar zaizkio. Horiek kontuan izanda, AP-8aren kudeaketak emaitza negatiboa ekarri zion Aldundiari 2014an eta 2015ean (21 eta 18 milioi euro, hurrenez hurren), eta 2016an ere balantza kontrakoa izatea espero da (ia 12 milioi). Hala ere, hiru urteotako emaitzak salbuespena dira: 2002tik 2013ra 74 milioi irabaziak izan ziren orotara, inbertsioak ere kontuan izanda, eta Aldundiak aurreikusi du 2002-2035 tartean, guztira, 1.152 milioi etekina emango diola AP-8ak.

Gaia aztertu bai, doakotasunik ez

Herritarren haserreak eratutako olatu arin iritsi da erakunde publikoetara, nahiz eta alderdi batek ere ez duen guztiz bat egin Durangaldean sortutako plataformaren eskariarekin, hau da, ordainsariak erabat ezabatzearekin. Momentuz, A-8 Peajerik Ez plataformak lortu du gaiari buruzko mozioa eztabaidatzea pare bat udaletan. Eskualdeko handienean, Durangon, gobernuan dagoen EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa gailendu zen azkenik. Horren ara-

bera, bailarako biztanleei autobideko ordainsarien zama arintzeko eskatuko dio Udalak Aldundiari, gehiago zehaztu barik. Durangoko alkate Aitziber Irigorasek eskualdeko alkate gehienekin batera emandako prentsaurrekoan azaldu zuen bere alderdiaren jarrera.

Batzar Nagusietan EH Bilduk egin du lehen urratsa. Koalizioak eskatu du eztabaida sakona egin dadila ez bakarrik bidesariei buruz, baizik eta errepide bidezko mugikortasunari buruz. “Egoeraren argazkia nahi dugu, eta hori ezagututakoan erabakiko dugu zer proposamen zehatz egin”, azaldu du Zigor Isuskiza batzarkideak, “baina horretarako datu guztiak behar ditugu, eta horiek Aldundiak baino ez ditu”.

Edozelan, EH Bilduk garbi ditu defendatu beharreko oinarritzko irizpideak: kalitatezko garraio publikoa sustatzea, “mugikortasuna ibilgailu pribatuetan oinarritu ez dadin”, eta kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela dioen printzipioa errespetatzea. Horregatik talde abertzaleak ez du babestu A-8 Peajerik Ez plataformaren aldarrikapena, baina bat datoz haiekin gauza batean: “Desoreka eta diskriminazioa nabarmenak dira Bizkaian”.



LEHIOR ELORRIAGA

“Ereduari buruzko sakoneko eztabaida” ematen den bitartean EH Bilduk behin-behineko neurria proposatu du, Gipuzkoako AP-8aren erabiltzaileek ondo ezagun dutena: gidariekin 28 euro ordain ditzatela gehienez hilerok.

Aldundiaren erantzuna

Urtarrilaren 27an Gernikako Batzarre-txean egindako BBNNen osoko bilkuran, Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapen diputatuak esan zuen Aldundia irailetik ari dela aztertzen tarifa eredu integral bat ordainpeko bideetarako. “Eredu berri horrek errepideok erabiltzen dituzten bizkaitarren kostu ekonomikoak txikituko ditu”, zioen Ekonomia eta Garapen Sailak kaleratutako prentsa oharra. Xehetasun gehiagoren bila jo dugu Aldundira, baina erantzun digute oraingo ez diotela ezer erantsiko Pradalesek esandakoari.

Diputatuaren adierazpenak ez ditu ase arazoarentzako irtenbide eske joan zaizkionak. Bai A-8 Peajerik Ez plataformak bai EH Bilduk uste dute denbora irabaztearren emandako erantzuna izan dela, Durangaldean sortutako herritarren erreakzioari nolabait aurre egin beharrak eragindakoa. Zigor Isuskizak,

ren ustez, ez du sinesgarritasun handirik Aldundiak “bizkaitarrentzat kostu ekonomikoa txikitzeko” asmoa duela esateak, tarifak %2,5 handitu eta hiru astera. Era berean, EH Bildukoak susmagarritzat jo du irailean hasitako azterketaren berri eman ez izana tarifa igoeraren aurkako 12.000 sinadura bildu diren arte.

Bateko irabaziak, besteko galerak

Arestian esan dugunez, AP-8aren us-tiapenari esker 1.152 milioi euroko irabaziak espero ditu Bizkaiko Foru Aldundiak 2035 bitartean. Baina autobide hori ez da ordainpeko errepide bakarra herrialdean. Tarifa igoera justifikatzeko Interbiak sozietate publikoak egin duen azterketan kontuan hartzen dira, halaber, Metropolitik Hegoaldeko Saihesbidea -Supersur delakoa- eta Bilboko sarbideetako batean dauden Artxandako tunelak.

Supersurri dagokionez, Aldundiak 2035. urtera arte aurreikusi duen emaitza zeharo txarra da: 1.056 milioi euroko galera. Hotzikara eragiteko modukoa... AP-8ko irabaziak egongo ez balira gaitza arintzeko. “Argi dago Supersurreko zuloa estali nahi dutela AP-8arekin”, iritzi

» **ZIGOR ISUSKIZA, EH BILDU:**
“Mugikortasun eredu berriaz eztabaidatu behar da Bizkaian, kalitatezko garraio publikoa sustatzeko eta kutsatzen duenari ordainarazteko printzipioen arabera”

dio Zigor Isuskizak, “arazoetako bat da AP-8ko sarrerak kalkulatzeko trafikoa-ren bilakaeraren aurreikuspen puztu batean oinarritu direla: %4 urtero. Hori ez da errealia”. Interbiak-en txostenean, aurreikuspen hori sustengatzeko aipatzen da 2014 eta 2015eko igoerak %3 eta %5ekoak izan direla hurrenez hurren. Alta, Isuskizaren ustez ezin da ziur esan joera horrek luzaroan iraungo duenik, aurreko urteetan jaitsierak ere izan baitira, krisiaren ondorioz. ■

“LEGEZKO BIDEA UKATU DIGUTENEZ, **GURE ESKUBIDEEN ALDE** **DESOBEDITU BEHARKO DUGU**”



Axier Lopez
@axierL

Lau urtez bere herrian zinegotzi aritu ostean, irailean Kataluniako Parlamentura egin zuen salto Albert Boltran Pahissak (Molins de rei, 1984). “Ni *pressing* CUPetik onik atera nintzen” ilobei esan ahal izango dien CUPeko parlamentarietako bat da.



Nola bizi izan duzu CUPen militantzia zati bati egindako presioa Junts pel Sí-ren (JxSí) proposamena onar zezan?

Bi aldetatik izan da presiorik, baina askoz lotsagabeagoa izan da zioena CUPek, alderik txikiena izateagatik, JxSíren hautagaia onartu behar zuena: “Korrelazioan zuek bat zarete seiren aurka, onartu behar duzue”. Horrek nolabaiteko logika badu ere, Kataluniako gizartearen hainbat sektoretan txertatuta dagoen kultura politiko autoritarioa islatzen du. Une batetik aurrera, gure ezetzaren arrazoiei kasurik egin gabe, alternatibei entzungor egiten zieten, gure baietza noiz etorriko zain besterik ez zuten buruan. Convergenciaren

ustez, Masen figura gabe prozesuaren eskuineko alde arriskutan jarriko zen. Guk esaten genuen hautagai alternatiboa Convergenciak hautatzeak sektore horiei segurtasuna emango ziela, eta azkenean hala izan da. Inor ez da prozesu independentistatik aldendu. Espero dut *pressing* CUPen alde dena eman zuen jendeak ikasi izana horrelako jarrera autoritarioek ez dutela lekurik, txikiak, txiki izate hutsagatik, ez duela zertan handiaren aurrean amore eman behar.

Poble Lliure (PL) erakundeko militantea zara sorreratik. Negoziazioetako korapiloa askatzeko Artur Mas onartzearen alde egin zuen PLk publikoki. 10 diputatuen artean “sektore” baten ordezkaria izatea erreza izan al da?

CUPen beste erakunde bateko kideak garenok ageriago gaude, baina babesa ere badugu. Independenteeek gehiago sufritu dutela uste dut. [Antonio] Bañosen dimisioa horregatik azaltzen da hein baten. “Kanpotik” datorren norbait, CUPera batzean, badaki gutxi gora behera zer dagoen eztabaidak publiko xamarrak direlako, baina ez daki antolakundea zein neurritaraino tenkatu daitekeen horien moduko negoziazioetan. Eta bat-batean, bera burua erdian topatu zuen. Independenten bat barne mailako eztabaida dinamikan egoki txertatzen ez asmatzeak zer pentsatua ematen du. Denok pairatu dugu tentsioa era ezberdinetan. Oso nekagarria izan da, baina asko ikasi dugu.

Zurrumbilo horretan, zenbait artikulu – urtarrilaren 7an Vilaweben Vicent Partalek idatzitako editoriala kasu – saiatu dira “CUP = Poble Lliure + Endavant” ekuazioa azpimarratzen.

CUPeko jendearen gehiengo zabalak ez du bi erakunde horietan militatzen. CUPen barruan iritzi-eragile gisa aritzen dira erakundeok eta horien bueltan diskurtso asko sortzen dira. Negoziazioetan ikusarazi da, azken batean, eztabaida ia modu bitarrean polarizatuta amaitu zen.

Barne mailako eztabaida publiko egiteak CUPen jarrera ahuldu al zuen negoziatioetan?

Hain anitza den antolakunde batean ia ezinezkoa da eztabaida barne mailako bideetatik bideratzea. Adibidez, negoziatioen hastapenetan hedatzen hasi zen

hauteskundeetara joateak ez zuela ezer txarrik ekarriko zioen ideia. Aurrerago berdina gertatu zen hauteskundeak ez egiteko Mas onartzea hobea zela zioen ideiarekin. CUPen antolakuntza-ereduaren izaeragatik saihetsezina da eztabaidak barne mailako mugak gainditzea.

Pressing Cup une gorenean zela, gehien-goak Mas ez onartzea erabaki zuen asanbladan. Egun gutxitara kontrakoa publikoki babestu zuten Poble Lliuraren komunikatuak edota Ara egunkariko azalean agertutako David Fernandezen artikuluak. Hori ere saihetsezina al da?

Eztabaida publikoa izanik, eragiteko asmoz jende guztiak erabiltzen du eskura duen bitarteko oro. Niri dagokidan parteari dagokionez, eztabaidan iritzi bat ezartzeko antolakunde politiko batek egin dezakeen gutxienezkoa da komunikatu bat argitaratzea.

Negoziatio mahaian zure kideak estu hartzeko erabiliko dutela jakinda ere?

Noski. PLren jarrera ez zen Artur Mas onartzea, baizik eta akordioa lehenetsia. Sabadellgo asanbladaren ostean, hedabideek eta JxSíren talde negoziatzaileak ekin zioten CUPen barne mailako zatiketari enfasi handiagoa jartzeari. Ordurako debatea oso publikoa zen, asanblada bat bitan banatu zelako. Erabakitze-prozesu irekiak eta asanblarioak egitean ezinezkoa da eztabaida ezkutatzea, ezin dituzu lerroak estutu. Begi-bistakoa da une horretan beste aldeari zure kartak erakusten ari zarela.

Orduan, eztabaida hain agerian egingo zenukete berriz?

Nire iritzi pertsonala da antolakundearentzat askoz onuragarriagoa izan zitekeela asanblada nagusira heldu izana kontsentsu maila altuagoa lor zezakeen proposamen batekin. Azkenean egin genuena izan zen militantzia osora hedatzea CUPeko beste organo batzuetan zegoen blokeoa, baita militantziak korapiloa ez askatzeko arriskua ere. Eta hala izan zen. Berdinketa hori eskala handiagoan errepikatu zen, 3.000 lagunengatik parte hartzearekin. Zuzendaritza politikoaren betebeharra da barne mailan ahalik eta babes handien bilduko duten proposamenak sortzea. Baina bestetik, aitortu behar da CUPen ez dagoela ohiko zuzendaritza politikorik. Zuzendaritzan ez dago programa jakin baten inguruan erabateko

Bilbon elkartu ginen Boltranekin Rosa Luxemburg II konferentziak gonbidatuta.

AXIER LOPEZ

kohesioa duen talderik, gaizki jokatzu gero kongresu batean alboratu daitekeena. Horrelakorik ez da CUPen. Antolakundearen beraren aniztasuna erabakiguneetara eramango duten pertsonak hautatzen ditugu. Horregatik batzuetan oso zaila da adostasunera heltzea. Gure bidea motelagoa eta arriskuetsuagoa da.

Horren erantzukizun handiko erabakia modu asanblearioan hartu duen adibide askorik ez da Europako politikagintzan.

CUPen funtzionamendua politizazio eskola garrantzitsua da. Jendea inplikatzeko modua oso zorrotza da denbora aldetik. Hori aztertu beharko genuke. Batzuetan oztopo bilakatzen da herritarren sektore batzuek parte har dezaten, etxean eta familian ardura dutenek adibidez. Asko politizatzen duen sistema da, erabakietan pertsona asko inplikarazten duelako.

Akordioan hitz gogorrek daude negoziatzioetan CUPEk izandako jarrerari buruz.

Horren arrazoia, batetik, JxSiren exijentzia izan da eta bestetik, dagokigun ardura gure gain hartzeko nahia; tamalez beste aldeak bere gain hartzen ez duena. Haiena kontraesan politikoak kudeatzeko era klasikoagoa da: alderdi bategen ezin du inoiz aitortu oker ibili dela. Guri ez zaigu zail egiten esatea agian gehiegi luzatu garela erabakia hartzen eta horrek jendearengan urduritasuna eta nahasmendua sortu dituela. Kultura politiko berria sortzeko gure ekarpena da. Gure barne mailako eztabaidak publikoki zabaltzen diren bezalaxe, ahuleziekin ere berdina gertatzen da. Horrek ez gaitu kezkatzen jakin badakigulako gure indarguneak beste batzuk direla.

Akordioa lortu ez eta hauteskundeetara heldu izan bazinate, zatiketa saihetsezina litzateke?

Ez dut uste. Beti pentsatu izan dut CUPEk horrelako prozesuei aurre egin ahal diela, barne mailan tentsioa edukitzera ohituta gaudelako. Orain hori aztertzeko eta eztabaidatzeko aukera dugu, antolakundearen gehiengoarentzat onuragarria den egoera lortu dugulako. Gai honen funtsean eztabaida sakona dago: prozesu independentistaren gaitasun eraldatzaileak eta aktore politiko autonomo gisa izateari uzteko prozesuak dakartzan arriskuei buruzkoa. Debate hori lau edo bost urtez, gutxienez, luzatzen aritu gara.



ROSA LUXEMBURG LAGUNAK

Bilboko Hika Ateneoa txiki geratu zen bere hitzaldiaren entzuleak hartzeko; prozesu independentistak, eta bereziki CUPen politikagintza ereduak, Euskal Herriko ezkertiarrengan sortu duen interesaren isla.

Zurrunbilotik hobekien atera dena ERC dela dirudi. Nola azaltzen duzu negoziatzioetan publikoki izan duen ekidistantzia eta barne mailan JxSiri eman dion baldintzagabeko babesa?

Haiek Convergenciarekin akordio bat daukate eta ez zuten arriskupean jarri nahi. Nabarmena da Esquerrako batzuek gure ikuspegi berekoak zirela, baina ahots bakarra izatea erabaki zuten beren hautagaiaren izendapena-

ri buruz, haientzat oso garrantzitsua dena.

Bi egoeratan irabazle sentitzen ziren. Akordioa lortuz gero, gobernu berriaren osaketan %40 eta %50 arteko pisua lortuko zuten, azkenean gertatu den gisan. Eta akordiorik ezean, hauteskundeetan litekeena da bozka independentistak ageriko bi muturrak zigortzea akordioa galarazteagatik. Hau dena fikzioa da noski, baina burutik pasako zitzairen.

“Jarrera autoritarioek ez dute lekuri; txikiak, txiki izate hutsagatik, ez du zertan handiaren aurrean amore eman behar”

“Estatuaren izaera autoritaria agerian utziko duen gatazka instituzional eta demokratikoa da prozesuaren oinarria zabaltzen duena”

“Independentistok Espainiako gobernu berriaren aldetik espero dugun bakarra da autodeterminazioa, erabakitzeko eskubidea eta erreferendum loteslearen antolaketa onartzea”

ANCKo (Kataluniako Asanblada Nazionala) presidente Jordi Sanchezen adierazpenak oso gogorrak izan ziren CUPekiko. Erabakitzeko eskubidearen aldeko zenbait antolakunderen kritika norabide bakkerra mugatu direla sentitu al duzue?

ANCren aniztasun ezaz kexu izan gara, beraz orain komenigarria litzateke guk zenbait plataforma eta antolakundetan aktiboago parte hartzea, zati baten alde egin beharrean mugimendu independentista osoarentzako balioak izan daitezten. Gure izatea ukatzen duen estatu batekin talka egitera goaz eta horretarako gizarte antolatua indar handia behar da.

Kataluniako errepublikarantz, biderik al da desobedientziarik gabe?

Ez, jakina ezetz. Aukerarik legoke Espainiak bere Konstituzioan autodeterminazioa jasoko balu. Estatuak gatazka demokratiko hau bide legezkotatik konpontzea ukatu duen mementotik, kontziente izan behar dugu gure eskubideen alde egiteko desobeditu beharko dugula.

Eta hori posible al da Convergènciarekin?

CDCK ez du prozesua gidatzen. Eragiteko pisu garrantzitsua duela esango nuke. Horren froga da azken lau urteotan beren lehentasunak ez direla beti bete izan. Haiek saiatu ziren 2012ko Diadaren manifestazioak akordio fiskalari erreferentzia egitea, eta azkenean onartu behar izan dute bide zentrala aldarrikapen independentista izatea. Convergència Democràticaren mugak erakusten ditu horrek.

Iraultza orok barnebiltzen du erregimenarekin eroso ziren sektoreen zati bat, prozesuak aurrera egin ahal jarraera apurtzaileetara hurbiltzen dena. Horrela gertatu zen Frantziako iraultzan, errusiarrean eta beste prozesu historiko askotan.

Gihar independentista indartu eta %50eko langa gainditu dezan, Carles Puigdemont figura egokia al da?

Bai. Estatuaren izaera autoritaria agerian utziko duen gatazka instituzional eta demokratikoa da prozesuaren oinarria zabaltzen duena. Eta jakina, bestelako eredu soziala bere egingo duen prozesua izan behar du, krisiak gogorren zigortutako herritarren beharrei erantzuteko gai izango dena.

CUPeko eta Endavanteko kide Laia Altrribak ondorengoa adierazi zuen L'Accent hedabidean: “Convergènciakoak prozesua deritzon horren gurdira igo dira poltsikoa banderarekin estaltzeko”.

Alde oportunistak egon liteke, baina gehiengo zabalaren hautua sakoneko joera baten ondorioa delakoan nago. Zenbait gizarte klasek uste zuten eredu autonomikoak ondo funtzionatzen zuela aurrekontu publikoa beren artean banatzeko baliogarria zelako. Baina orain dela urte batzuk hori aldatu zen eta burgesiaren maila baxuenarekin lotutako zenbait gizarte klase hasi ziren

Trantsizioak ezarritako adostasunetik politikoki deskonektatzen. Horrek, neurri batean, azaltzen du CIU bitan banatu izana.

Begi-bazterraz begiratzen al diozue Espainiako gobernu berriaren eraketa prozesuari?

Oso interesgarria da gertatu daitekeena, baina guk independentistok gobernu berriaren aldetik espero dugun bakarra da autodeterminazioa, erabakitzeko eskubidea eta erreferendum loteslearen antolaketa onartzea. Horik harago beste guztiak ez digu axola. Gurekin ez dezatela kontatu Estatuko erakundearen erreforma estetikoetarako, ezta elkarriketa antzuak betiko luzatzeko ere.

Zer agindu dizue medikuak barne zauriak sendatzeko?

Eztabaida politikoa da antolakunde bateratua izateko botika bakarra. Erraz da esaten eta zailago egiten, egunerokotasunak galarazten duelako erabakitze prozesu lasai eta konplexuagoak gartztea. ■

JOLASAREN BIDEZ SEXISMOA LUMATZEN

Generoaren eta parekidetasunaren inguruan eztabaidatzeko Elhuyar Fundazioak sortutako solas-jolasa da *Bizentaren Lumak*. Gazteak –eta ez hain gazteak– gaiaren inguruan hausnartzera eta konpromisoak hartzera bultzatu nahi ditu jokoak.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Garazi Zabaleta
@tirikitran

Josu, 14 urte: “Burua nahasita daukat. Familia ez dut jasaten. Zergatik tokatu zaizkit niri guraso hauek? Lagunak dira niretzat garrantzitsuena, baina horiek ere berehala kritikatzeko naute. Ez ditut mutilen kirolak gustuko. Lodiegi nago? Neskekin gusturago sentitzen naiz, baina beraietako bat ere ez naiz. Homosexuala izango ote naiz? Hori diote besteek, ‘armairutik atera, behingoz!’”.

Egoera anitzak bizi dituzten 27 pertsonaien istorioak planteatzen dira *Bizentaren Lumak* jolasean, ondoren parte-hartzaileek hainbat kontzepturekin lotu beharko dituztenak: sexismoa, genero-identitateak, Queer teoria, heteroaraua, maitasun erromantikoa, androzentrismoa, eta abar.

Bizenta Mogeli, emakumezko lehen euskal idazleetakoa izanari, omenalditxo egin diote egileek jolasaren izenarekin: “Beste proiektu batean geundela, Bizenta Mogelen idatzi batzuk topatu genituen. Berak galdetzen zuen, ‘zer egiten dut nik beste baten lumak jan-tzita, idazle bizitza egiten?’, kontziente

baitzen jarduera hura ez zela emakume bati zegokiona”, azaldu digu Naiara Arri proiektuaren arduradunak.

Mogelek hausnarketa hori XIX. mendean jada egin bazuen ere, bistan da egun oraindik generoaren eta parekidetasunaren inguruko gogoeta eta eztabaida beharrezko direla. Helburu horrekin sortu dute, bada, *Bizentaren Lumak*.

Tresna faltari erantzunez

Berdintasunaren gaia gazteekin eta euskaraz lantzeko material falta zegoela ikusita abiatu zuen proiektua Elhuyarrek. Urtebete eman dute gutxi gora-behera jolasa sortzen, baina ideia lehenagotik zetorren Aizpea Otaegi Elhuyar Aholkularitzaren koordinatzaile nagusiaren arabera: “Babes ekonomikoa behar genuen ideia aurrera ateratzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua babestu izana bultzada izan zen horretarako”.

Beste hainbat lanetan lehenagotik erabilitako *Play&Decide* metodologia aukeratu dute jolas honetarako ere: tal-



detan banatuta gai zehatzen inguruan hausnarketak, argudioak eta eztabaidak erraztean oinarritzen da eredu.

Bizentaren Lumak jolasean aurkezten zaizkigun istorioak gertuko senti ditza-ke edonork. Otaegiren ustez, istorioak “aitzakia” dira azken batean: orokorrean, gure egunerokoan tartea eskaintzen ez diegun gai horien inguruan hitz egiteko tresna. Istorio-txarteletako bizi-penak informazio-txarteletako kontzeptuekin lotu behar dituzte partaideek, eta solasaldia aberasteko eztabaidagaiak erabil ditzakete. Adibidez, 3. eztabaidagaia, *Gizonen papera berdintasunean*: “Emakumeak gizonik gabe elkartzea eta antolatzea diskriminatzea da. Gizonek nahitaez parte hartu behar dute mugimendu eta politika hauetan”.

Luzerako eman dezaketen gaiak.

“Istorioek lotura zuzena dute gure bizitzekin”

Solas-jolasa atera zutenetik hainbat saio egin dituzte Elhuyarrekoek toki ugarritan. Horietako bat Mondragon Uni-



» “Nire lehengusu bat antzeko kasuan dago” edo “lagun bati gertatu zitzaion hori” bezalako esaldiak entzun ziren gazteen artean

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasleak. Ustez kasualak eta puntualak diren egoerek errealitate oso bati erantzuten diotela ikusi eta ikasi zuten.

SAREAN DOAN

Jolastu nahi duen ororentzat esku-ragarri jarri dute materiala www.bizentarenlumak.elhuyar.eus webgunean. Helburua ahalik eta jende gehienak ezagutzea eta erabiltzea da, bai norberak bere kabuz, bai Elhuyarrekin harremanetan jarri eta saioa prestatuta. Izandako esperientziak elkartrukatzeko txokoa jarri dute webgunean.

bertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasleekin egin dute, Emakunderen Berrintzasun Foroaren baitan.

6-7 pertsonako taldetan banatu ziren ikasleak, eta talde bakoitzean dinamizatzaile bat zegoen. Horiek ere ikasleak ziren, partaideak beren gune naturalean egoteak asko aberasten baitu eztabaida, Arriren ustez: “Kanpotik datozen bideratzaile batzuk egonda, askotan, politikoki zuzena dena errepikatzeko arriskua dago”. Dinamizatzaileek saioa baino lehen lanketa egiten dute Elhuyarrekin, eta horiek ere “ahalduntze prozesu nabarmena” bizitzen dutela adierazi digu Arrik.

Hasi zen jolasa. Lehen minutuetan tentsio pixka bat nabari zen partaideen artean, giroa nahiko isila zen eta hitza hartzea kostatu zitzaion. Denborak aurrera egin ahala, ordea, partaideak askatzen joan ziren, lasaitzen, eta pixkanaka aretoan zurrumurrua zabaldu zen. Irribarreak eta algararen bat ere tartekatzen ziren taldeetan, baina orokorrean eztabaida seriotasunez hartu zuten ikasleek.

“Nire lehengusu bat antzeko kasuan dago” edo “lagun bati gertatu zitzaion hori” bezalako esaldiak entzun ziren gazteen artean. Ordubetetik gora hizketan egon ondoren, gainerako taldeekin beren gogoetak eta hartutako konpromisoak elkarbanatzeko tarteak izan zuten ikasleek.

Bizipenei izena jartzen

Jolasa “oso interesgarria” iruditu zitzaion gazteei: “Hainbat kontzeptu argitzea beharrezkoa da, gaur egun oraindik askok feminismoa gizonezkoenganako diskriminaziotzat hartzen baitute, eta ez parekidetasunaren aldeko borroka bezala”. Denek azpimarratu zuten askotan izandako bizipenei izena jartzea eta kontzeptuekin lotzea aberasgarria izan zela oso. Izan ere, ustez kasualak eta puntualak diren egoerek errealitate oso bati erantzuten diotela ikusi eta ikasi baitzuten.

Bestalde, partaideetako askok jolasen bizitakoa ingurukoekin partekatuko zutela ere aipatu zuten dinamiza-

tzaileek: “Ziur nago askok koadriletan edo beste gune batzuetan komentatuko dituztela saioan ateratako hainbat ideia eta eztabaida” diote. “Egunerokoan ditugun jarrerak eta jokabideak aztertu eta horiekin kritiko izatea ahalbidetu digu jolasak”, gaineratu zuten parte-hartzaileek.

Eskolan, aisialdi taldeetan, gaztetxeetan, guraso elkarteetan

Bereziki gazteei zuzendutako jolasa izanik ere, publiko-xedea 14 urtetik gorako edozein talde izan daiteke Elhuyarreko kideen arabera. Aukeratu beharreko istorioen artean adin eta egoera askotako pertsonaiek egonik, taldearen izaeraren arabera aukeraketa eta eztabaida maila aldatu egiten da: “Istoriok gazteengan pentsatuta daude eginak, baina denok izan gara gazteak edo denok ditugu gazteak inguruan, eta askotan, gainera, gazteei gertatzen zaizkien gauza berak gertatzen zaizkie zaharragoei ere. Beraz, materialak adin guztietarako tresna gisa balio du”, azaldu du Otaegik. ■

OSAKIDETZAN,

EUSKARAZ ESKAINIKO EZ DIZUTENEZ, ZUK ESKATU

Odol analisiak, historia klinikoa, traumatologoaren txostena... ez dituzu sekula euskaraz irakurriko, ez bada aurrez euskaraz jasotzea eskatu duzula. Eskariak eskaintza aupatuko duela uste du Aitor Montes Aramaioko medikuak. Iaz Arrasaten bezala, orain Oñatin egin dute osasun informazioa euskaraz eskatzeko kanpaina.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

“Osasun arretea euskaraz eskatzen badugu, orduan ikusiko dute horren beharra, eta hasiko dira eskaintzen. Zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta gehiago eskainiko dute”, adierazi dio Aitor Montesei *Goiena* agerkariari. Uste horrekin, otsailaren 17an, Oñatin, Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan eskaera bilketa egin dute.

Eskaera bilketa egiteak honakoa esan nahi du: Aitor Montes medikuak eta ekimeneko beste kideek dokumentazio klinikoa, ekografia, pediatria, ginekologia eta traumatologiako zerbitzuak eta erresonantzien emaitzak euskaraz jasotzeko eskaera ereduak prestatu zituzten. Ordenagailuetan eskaera ereduak ireki eta herritarrek zein eskaera mota egin nahi zuten esatea besterik ez zuten.

Ekimeneko kideak eskaerak edo kezak Osakidetza helarazteaz arduratuko dira, eta horretarako hizkuntza eskubideen urraketak azaleratzeko dauden bi bideak erabili dituzte. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Elebide zerbitzura bidali dituzte, eta bestetik, Akuilari aplikazio



Aitor Montes eta Garazi Sagasta, Arrasateko Jai Zale tabernan herritarren eskaerak biltzen, 2015eko martxoan.

ARGAZKIA: AITOR MONTESEK UTZIA

estreinatu berria erabiliz Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

Oñatiko ez da lehen saiakera. 2015eko martxoan Arrasaten egin zuten estreinakoa. Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina Arrasateko Euskal Herrian Euskarazkoekin elkartu ziren azken horiek kudeatzen duten Jai Zale tabernan. *Kexa poteoa* deitu zioten kanpainari, eta ostiraletako tabernaz tabernako prozesioa baliatuz, hainbat herritarrek eskaerak bete zituzten.

Ekinaldi hartan, arratsalde batean, 78 kexa eta iradokizun jaso zituzten. Halako saioek izan dezaketen eragina azpimarratu nahian, Montesei 2013an Elebiden jasotako kexa kopuruarekin alderatu du: osasun arloari lotutako 20 kexa. Aramaioko medikua baikorra da eta dio Arrasateko eta Oñatiko bilketa modua erabilita 2.000-3.000 eskaerara heltzeko aukera dagoela. Hasierako argumentaziora itzuliz, eskariak eskaintza behartuko duelakoan, gaur-gaurkoz Osakidetza ez baitu euskarazko osasun arretarik bermatzen. ■

ZERGATIK EZ GARA KEXATZEN?

Osasun arloa ez da hizkuntz eskubideak errespetarazten hasita euskal hiztunak borrokalarien ibiltzen diren eremua. Bi behintzat izan daitezke arrazoiak.

Batetik, osasun zentzora gerturatutakoan pazienteak sarri uzten ditu bigarren mailan hizkuntz eskubideak, osasunez pattal dabilelako, zer daukan ez jakin eta kezkatuta dagoelako... nahikoa lan bere buruarekin. Bestetik, Osakidetza eragilearen egitura konplexuak ere ez du batere laguntzen hizkuntz eskubideak urratzen direnean kexa nola bideratu asmatzen, eta helburua lortzen.

Horregatik, Arrasateko eta Oñatiko ekimenen bultzatzaile Aitor Montesen iritziz, osasun langileek beraiek asko egin dezakete euskal hiztunen eskubideak errespetatzeko baliabideak eskaintzen.

BESKOITZEKO IKASTOLA

FALLOUX LEGEAREN OLDARRALDIARI EUTSITA

Beskoitzen ez zen ikastolarik, 2013an inauguratu zuten arte, guraso batzuen etxean, hiru haurrekin. Falloux Legearen mamua hor badabil ere, gaur egun herriko etxeko lurretan, alokairuan, prefabrikatuan, 13 haur daude ikastolan.



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

Lapurdiko Beskoitze herrian biztanleen %17,44k daki euskaraz (2010eko data, Wikipediak emana). Erabilera berriaz, 2011ko datuen arabera, %1,8koa da. Xabi Irigoien Beskoitzeko ikastolako lehendakari eta gurasoak beste modu batez azaldu ditu zifrak Kanaldudek egindako bideoan: “Duela ehun urte denak euskaraz ari ziren eta ttipiki-ttipiki gune guztietatik, ez desagertu, baina isildu da. Gaur egun beharbada ehuneko hogeiek badakite euskaraz, baina ez da entzuten, eta egia da euskaldunek ere gero eta gutxiago baliatzen dutela euskara. Gure nahia litzateke euskara zabaltzea, eta desagertu den gune guztietan berriz euskara entzutea, erran nahi du, hemen, ikastolan, ikastolatik plazara, plazatik okindegira, okindegitik herriko etxera”. Kontuan hartzeko beste datu bat: 1975ean 1.085 biztanle zituen herriak eta gaur egun badira 2.400 inguru beskoitzar. Irigoienek gogoeta: “Jen-



13 haur, irakaslea eta laguntzailea dabilza Beskoitzeko ikastolan. Aurten beste prefabrikatu bat atontzekotan dira.

KANALDUDE

dea etorri da eta beharbada guk euskaldunok ez dugu jakin haiek errezibitzen, haiei euskararen beharra sentiarazten”.

Gurasoek beren haurrek ikastetxea herrian izatea nahi zuten –eskola publikoa eta pribatua ere badira herrian– eta ikastola izatea.

Herriko etxearen lurretan

Guraso batzuen etxean hasi zuten ikastola 2013an, hiru haurrekin. Orain herriko etxeari alokatutako lur zati batean dira. Bi eraikin dituzte, bata prefabrikatua. Azken horretan dituzte ikasgela eta logela. 13 haurrak biltzen dira ikasgela horretan. Alboko eraikinean aterpe txiki bat eta komunak dituzte. Urte honetan bertan beste prefabrikatu bat eraikitze-ko asmotan dira, logela han ezartzeko. Haurrek 2 urtetik hasi eta 6 urte bitartean dituzte. Urte eta erdiz eskola barruan bazkaldu dute eta orain herrian den kantinan, beste bi ikastetxeetako

haurrek duten jangelan, tokia dute ikastolako haurrek ere.

13 haurren irakaslea Ane Gomez da eta laguntzailea Ainara Arano. Bi haurrek Haur Hezkuntza bukatuko dute aurten eta gurasoek herrian bertan jarraitzea nahi badute ere, ziurrenik ondoko herriko ikastolaren batera joan beharko dute ikastera. 13tik 11ra egingo du kopuruak orduan, baina baliteke 2016ko eskola sartzean beste bi haur berri izatea Beskoitzeko ikastolan.

Beskoitzeko Herriko Etxeari prefekat salaketa jarri zion 2013an, Seaskari ikastola ezartzeko lurrak alokatzeagatik. Beste behin, Falloux Legea zuen aitzakia, alegia, iraskaskuntza pribatuari laguntza publikoak ematerik ez dagoela. Azkenean, auzia gibelera botatzea lortu zen 2014ko martxoan. Herriko Etxearekin egindako hitzarmenak bere horretan segitzen du, eta beraz, ikastolak urte batzuetarako la-saitasuna izango duela dirudi. ■

BABESLEA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabalduta da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

www.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Poemak zeruan



Jakoba Errekondo

Posta elektronikoa:
mandio@zerain.eus

Gibran Khalil Gibran poeta eta artista egun Libano denaren barrutian jaio zen Otomandarren Inperioaren garaian, 1883an. Artista izugarria omen zen. Niri berak idatzitako aipu txiki batek piztu dit arreta. Khalilek zioen lurra zeruan idazten dituen poemak direla zuhaitzak.

Rabindranath Tagore eragile eta idazle bengalarra zen, Kalkutan 1861ean jaioa, eta 1913an Literatura Nobel Saria irabazi zuen. Bere kulturala ko paisaiez erruz idatzi zuen, tartean honoko hau: "Entzuten ari den zeruari hitz egiteko lurraren ahalegin amaigabea dira zuhaitzak".

Zuhaitzak landatzeko sasoian gaude. Lan hori hartzeko arrazoi bila ez dago zertan urruneko poetengana jo. Neuk, ordea, naturaren garrantziaz jabetzeko poetek asko laguntzen dutela ikasi dut. Zientziak esango digu zuhaitzak janaria ematen digula, uraren kutsadura galarazten duela. Poetak esango du zuhaitzak ez zaituela traizionatuko. Zein baino zein, hirurak arrazoi bikainak zuhaitzak landatzeko.

Niretzat, funtsezko beste arrazoi bat bada zuhaitzak etengabe landatzeko. Klima dela eta ez dela, gure buruan daukagun borratea ikaragarria



da; batik bat eguraldiaren iragarpena negozio asarrea bihurtua dugunetik. Naturatik gero eta bereiziago bizi garenez, izugarri kostatzen zaigu ingurumena ezagutzea eta sudur-muturretik haraxeago gertatzen denaz jabetzea. Horretan, zuhaitzek urgentziazko laguntza ematen digute, laguntza itzela. Begirada luzatzera gonbidatzen gaituzte. Urrutitik erraz ikusten dira, eta, besterik ez bada, urtaroak garbien adierazten dituztenetako landareak

dira. Urtaroak, bai; dagoeneko gure jakintzatik ezabatzen ari garen sasoi horiek...

Jon Gerediaga poeta bilbotarraren tzat ere zuhaitzek aparteko garrantzia dute; izenburuan jaso ditu *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* liburuan. Poeta sasoiek erasaten diote: "Pozik nago udaberria heldu delako...". Poetak landareak nahitaezkoak ditu: "Eta hitz hauek ez dute inporta / lore zuriak lore zuriak".

Zuhaitzak landatzeko sasoian gaude. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Lur azidokoa da gure baratzea, eta erraustsak bota nahi dizkiogu, pH-a neutralizatzen. Gure galdera da: zenbat denbora behar da itxaron erraustsak bota ondoren zerbait ereiteko/landatzeko? Eta simaurra edo luarra bota ahal zaizkio ondoren edo lehenago? Zein denbora tarterekin? Esker mila!

Joxi Martín Haba (Santurtzi)

Kaixo Joxi eta konpainia. Lur azidoaren pH-a neutralizatzen oso egokia da errausta. Errausta bota eta segidan egin daiteke edozein lan, erein bezala landatu. Erraustsak ez du lurra erretzen, ezta kare biziak erretzen duen pittin hori ere. Errea denez hilda dago. Beraz lurraren gainean zabaldua edo berarekin nahasita, berehala jar daiteke landarea.

Organikoa aurretik bota zalea naiz ni. Eta egokiena ilargialdi bateko tartea uztea da. Orain negu-neguan simaurra edo luarra, eta martxoan errausta. Lur motela edo buztintsua bada biak sueto dantzatu. Mesede ederra egingo dio.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea • [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



KOPLA BERRIAK IRAKURLEAK LIBURUAZ JARRIAK

BARATZE BIBLIA

1. Horra *Bizi Baratzea* (bis)
arto ta aza jendea
edukiz trinko-trinkoa
bertan gutxi da haizea (bis)
horra *Bizi Baratzea*
2. Omen da bidezidorra
zorria eta satorra
norberak osatu dezan
bere neurriko altxorra
3. Lurra, ura ta argia
hori duzu oinarria
ongarri eta simaurra
errauts ta kare bizia
4. Lurra irauli behar den
nik ez nuen dudarik lehen
Jakobaren liburutik
leitu irauli baino lehen
5. Ureztatu beharra da
orduan baratz edarra
jorratu eta kimatu
dena esan behar al da?
6. Makina bat buruhauste
haize, euri ta izozte
edonon gertatzen dira
eta prestatu zaitezte
7. Sortzen dira ere gaitzak
hi Jakoba non haiz, aizak!
barraskilo ta barea
harrak jan zizkiguk azak!
8. Sendabide naturalak
hiretzat gauza normalak
azalpen sakonak dituk
ez dituk gauza axalak!
9. Zenbat dira barazkiak?
piper, porru, marrubiak
ezin falta litezkeenak
tipula-baratxuriak
10. Ilarra ta orburua
patata eta porrua
nork garbitu behar ditu
borraja eta kardua?
11. Baratze izatekotan
behar da zenbait txokotan
perrexil, oreganoa
Jakoba da uste hortan
12. Baratze txikia baina
hire lanaren tamaina!
laster ikusi behar duk
gure baratze bikaina
13. Baratze bidezidorra
hau liburu emankorra!
Jakoba Errekondo(r)i esker
biblia osoa horra.

Miel A. Elustondo

AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Otsailak 18

Iruñea

Civiox Condestable Jauregian,
19:30ean. Nafar Ateneoak eta Iruñeko
Udalak antolatuta.

Otsailak 22

Goiatz

Dendale ostatuan, 18:30ean.

Otsailak 23

Anoeta

Baratze Parkean, 18:00etan. Ondoren
Mikelasagasti auditorioan.

Otsailak 25

Zaldibar

18:30ean, lekua zehazteke.
Durangaldeko Berbalagunek
antolatuta.

Otsailak 27

Erratzu

Etxelebertzeko txokoan, 11:00etan.
Hazien Egunaren baitan.

Martxoak 2

Zornotza

Zitada Gunean, ordua zehazteke.
Guneak berak Arkupe kontsumo
taldearekin eta Nañon euskara
taldearekin batera antolatuta.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar
duzun informazioa eskuratuko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

ZOZKETA BIDEZKO DEMOKRAZIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Atenas, K.a. 330. Aristotelese (K.a. 384-322) *Politika* idatzi zuen. Eta obra horretan, beste eduki askoren artean, praktika demokratikorako arauak jaso zituen. Hona hemen bederatzi arauok laburbilduta:

- Magistratura guztiak guztion artean hautatzea.

- Guztiek bakoitzaren gainean agindu dezatela eta bakoitzak, txandaka, guztien gainean.

- Kargu publikoak zozketaz esleitu daitezela, guztiak edo esperientzia eta ezagutza teknikoak eskatzen ez dutenak.

- Pertsona berak ez dezala behin baino gehiagotan kargu publiko bera izan, edo salbuespenezko kasuetan soilik izan dezala.

- Pertsona berak kargu publiko guxti izan ditzala, gerrarekin lotutakoak izan ezik.

- Kargu publiko guztiak iraupen laburrekoak izan daitezela, ahal den neurrian behintzat.

- Hiritar guztiek, guztion artean aukerata, justizia administratzea.

- Herriaren Batzarrak gauza guztien edo garrantzitsuenen gaineko subiranotasuna izan dezala. Inolako kargu publikoak ez du subiranotasunik izango ezereen gainean edo, izatekotan, garrantzi gutxiko gaietan izango du.

- Kargu publiko bat bera ere ez dadila bizi bitartekoa izan. Eta bateren bat ge-



VATIKANOKO MUSEOA

'Atenasko eskola', Rafael (1510-1511). Aristoteles arkuaren azpian dago, zutik eta tunika urdina soinean, aldamenean Platon duela.

ratzen bada, kargutik kendu behar da, eta zozketagarri bihurtu, bozketa bidez aukeratu ordez.

Atenasen arau horiek indarrean jarri zituzten. Jakina, filosofoak "guztiak" aipatzen zituenean gutxiengoaz ari zen; IV. mendean Atikan 250.000 edo 300.000 pertsona inguru bizi ziren, hiritarren familiako kideak 100.000 ziren eta, horietatik, gizonezko helduak eta, beraz, Batzarrean parte hartzeko aukera zutenak, 30.000 inguru besterik ez.

Baina zozketa erabiltzen zuten kargu publiko gehienak banatzeko. 100 bat magistratura -nagusiki buruzagi militarrek eta kontulariak- bozkatzuz hautatzen zituzten baina gehienak, gainerako 600ak, zotz eginda banatzen zituzten.

Metodorik demokratikoa iruditzen zitzaizen, baita bozak erosteko ustel-

keria saihesteko bide egokia ere. Gainera aukera berdintasuna bermatzen zuen. Arriskuak ere bazituen: kargua egokitutako pertsonak ez zuen zertan alor horretan aritzeko gaitasuna izan. Horregatik, batzuen gabeziak besteen dohainekin berdintzeko, taldean egiten zuten lan. Finean, gehiago kezkatzen zuten boterea eta ondasunak esku gutxitan biltzeak, kargu batzuen gaitasunik ezak baino.

Bi milurteko geroago, besteak beste, Montesquieuk eta Rousseauk zozketa bidezko demokraziaren onurak aldarrikatu zituzten. Baina egun demokrazia eta zozketa lotzea zentzugabekeria iruditzen zaigu, kanpainetan dirua errekarra botatzen den, gaitasunik eza oztopo ez den eta ustelkeriari aurre egiten ez dion sisteman. ■



BLEKINGE MUSEUM

9.000 urteko arrain hartzitua

Adam Boethius Lundeko Unibertsitateko osteologoak munduko arrain hartzitu biltegi zaharrena, 9.200 urte ingurukoa, aurkitu du Suedia hegoaldeko Mesolito Aroko aztarnategi batean. Induskatutako eremuan 60 tona ur gezako arrain bildu zituztela kalkulatu du, eta "horrek adierazten du bertako gizakien dietak arraina zuela oinarri",

Journal of Archaeological Science aldizkarian idatzi duenez. Horrez gain, gizarte eskandinaviarrak garai hartan uste baino garatuagoak zeudela erakusten du aurkikuntzak. "Uste genuena baino askoz lehenago hasi ziren arrantzan eta arraina prozesatzen. Eskualdearen garapena garai berean Ekialde Ertainean zutenarekin pareka dezakegu". ■



"TXANPONAREN BESTE ALDEAK" SAILARI AGURRA

Ez da txanponaren azken aldea



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Orrialde batzuk lehenago irakurri duzu "Txanponaren beste aldeak" saileko azken artikulua. Ez esan saltatu egin duzunik, irakurle, leitu zenuen, ezta?

Marka da gero, nik neure buruari agur esatea. Lander Arretxeak eta biok alternatiba sozioekonomikoen inguruan hogeirekurekin osatu dugun atala bukatu da. Baina tira, dramatikoegi jarri aurretik, agurra baino gehiago fase aldatuta deituko diogu.

Heldu genion gaiari 2014an "Prekarietatearen aurpegiak" sailarekin lehen-dabizi. Bizipen pertsonal eta zehatzetatik errealtate prekarioak ukitzen dituen ertzak ikusaraztea izan genuen helburu. "Txanponaren beste aldeak" sailak hartu zion testigua 2015ean, eta honekin ekonomia eredu tradizionalen izkin egin nahian eta modu demokratikoago, justuago, parekideago eta jasangarriagoetan funtzionatzen duten enpresa, elkarre eta programak plazaratu ditugu.

Eta bagoaz aurrera. "Txanponaren beste aldeak" atala urtebeteko ibilbidearen ostean amaitutzat ematen dugu, baina ez da txanponaren azken aldea, asko dago oraindik egin eta argitaratzeko, eta gaia ARGIA geratzeko dator. Maiztasun eta sail ez hain definituan, baina modu sakonagoan prekarietateak, sozioekonomiak eta alternatibek beren baitan biltzen dituzten gaiak lantzen jarraitzeko asmoa daukagu. Erreportaje edo elkarrizketa moduan, eredu zehatzak batzuetan eta gogoeta zabalagoak besteetan paperera ekarri.

Etxeko sofako erosotasunetik ezer gutxi aldatuko dugu, baina krisiak eta ezegonkortzeak ezer onik badu mugimendua da. Geurea geuk egiteko garaia da, behetik eta txikitik; eta ARGIA mugimendu horiei ahotsa ematen jarraitu nahi du. Sinetsita baikaude eraldaketa norberak beretik emandako urrats txikitatik etorriko dela. ■

"Lehen militantzia irakurtzen nuen. Orain duen kalitateagatik. Irakurtzea merezi du"

Antxon,
ARGIAkoa

Donostiaren 2016 ertzak bloga jarri dugu martxan

Europako Kultur Hiriburutzarekin lotuta, ehunka ekitaldi kultural antolatzen ari dira hirian. Baina Donostian beste hainbat gauza ere ari dira gertatzen, zuzenean edo zeharka 2016ko ebentorekin harremana dutenak. Nola hartu dute kultur hiriburua herri mugimenduek? Nola jokatzeko ari dira alderdi politikoak? Zer harreman du hiriburutzak Donostian martxan diren proiektu urbanistikoekin?

Gertakariari angelu ugariatik begiratzeko plataforma izan nahi du *Donostiaren 2016 Ertzak* blogak. Kritikotasunez landutako hiriburutzari buruzko informazio, iritzi eta analisisa bilatzen badituzu, hau da zure lekua.

Joseba Larratxeren azalari *biba ta txaluak*



Gorka Salces
@gorkasalces

Azaltzarra! @joseviskyren diseinuak ondo mereziko luke leku bat El Portadistan elportadista.com

Malcolm IXa
@malcolm9x

@boligorria Ni be flipauta gelditu nintzen ikusi nuenean, oso ona da. Eta Astrakoa ere oso polita. :) @josevisky @orodil @argia

Oiala Rodil
@orodil

Hai portadas q o din todo e que merecen ser editadas en gran formato. Parabéns á pessoa responsável de deseño @argia

Miguel Sanchez-Ostiz, idazlea

"GERRA HEMENTXE DAGO, BESTELA EZ NUKEEN IDATZIKO"

Ziklo bat itxi berri du Miguel Sanchez-Ostiz idazleak (Iruñea, 1950). *El Escarmiento*, *La sombra del Escarmiento* eta *El Botín* argitaratuta, bukatutzat eman du 36ko Gerrak Nafarroan eragin zuen txikizioaren kontaketa. Baztertuak zituen hamaika proiektu berriz hartzeko moduan izango da hemendik aurrera.



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Baztan baitan, Baztan izan ginen, Miguel Sanchez-Ostiz –hemendik aurrera MSO– elkarriketatzen. Barka topikokeria, baina zer nahi duzue, hala izan zen. Zehatzago, Arraiozen, bertan bizi baita azken garaiotan idazle iruindarra. Lekaroz, Zoziaia, orain Arraioz, baina 1995etik Baztan: "Baztan izan da nire bizitzan ondoen bizi izan naizen lekua, erosoan, askeen, inguruarekin harreman onenak

izan ditudan lekua". 2007an utzi zuen, Iruñera itzultzeko, baina ziztu bizian egin zuen atzera. Orain ere ez du ezer jakin nahi Iruñeaz, "gero eta arrotzagoa zaidan hiri bat". Esan izan du inoiz: "Iruñean pentsatzen badut, nire baitan gero eta hilagoa dagoen zerbaiten antza hartzen du, apenas motibo literario bat, inork nekez ezagutuko lukeen memoriaren eszenatoki bat".

Baztan, beraz. Gure bazterrak, ordea –eta barka bigarren topikokeria–, ez dizkigu lanbroak ezkututzen: eguzkia parez pare, zerua *bleu glacé*, are bukolikoago eginez berez beste edozein bazter bezain krudela datekeen paraje ederra: adulterio, suizidio, biolazio, homizidio kontuak azaldu izan dizkiote bertan MSOr, guztiak ere "oso literarioak". Gure bazterrak, hartara, baina





ez Mikel Laboaren kanta hartan bezala: “Malenkonia biziko abestia, landarediak pisu izugarria hartzen duen hodei apaleko egun euritsu horien antzera”. Eta auskalo malenkonia hitza den egokiena, baina MSOren aldartea ez da kanpoko bezain eguzkitsua: “ez dakit”, “berdin zait”, “ahaztu dut” erabiltzen ditu etenik gabe. Nahiz behin baino gehiagotan esan duen: orainaldia dela bizi beharre-

ko denbora, existitzen den bakarra, ez dagoela lekurik nostalgiarentzat, hau da, poesia txarrantzat.

Esfortzu handia egitetik dator, esfortzu literario, intelektual eta, zergatik ez esan, pertsonal handi bat. 36ko Gerrak Nafarroan egin makurkeriei eskainitako trilogia bat, 1.200 orrialdetik goiti, orduak, egunak, urteak kendu dizkion proiektu bat, halaber osasun poxi bat.

“Ezin da onartu historiaren berridazketa hau. Nahiko motibo bada idazteko, horrekin aski ez izan arren”

“Akituta, indar hustuta geratu naiz, ondoez handiarekin. *El Botín* bukatu nuenetik ez dut bururik altxa”. Gauza bat baita 36ko Gerraz New Yorketik idaztea, eta beste bat gertatu lekuan berean egitea: “Agertzen diren izenak ez dira, Dovstoieskirenean bezala, errusiarak, zure familiarenak baizik, ahaide, adiskide, barride, herrikideenak”. Horrek dena aldatzen du: “Ez duzu gauza abstraktuez hitz egiten, gertatu ziren gauza batzuez baino, oso ondo ezagutzen dituzun paisaia batzuez, zureak direlako”.

Gerra pasa zela diote, baina ez: “Hementxe dago, bestela ez nukeen horri buruz idatziko”. Ez dira gorabehera soilik historikoak, “gaur-gaurko gatazka politiko eta sozialerako munizio bizia baizik”. Eta ez da hainbeste hamaika aldiz kontatutakoa berriz kontatzea, “ez bada ulertzen saiatzea orduko hartan gertatutakoak zergatik hunkitzen gaituen orain, behartzen gaituen posizio hartzera”. “Ez dut idazten historia errepika ez dadin, zerrikeria haien protagonistak zer egiteko kapaz izan ziren gogoratzeko baizik; orain ere, aukerarik txikiena izango balute, zer egiteko kapaz lirakeen. Borrokatzeko, ahal dudan neurrian, dominazio modu bat den oroimenaren suntsiketaren kontra”. Kontakizun historiko bat osatzea da helburua, beraz, ez mendekua edo kontu garbitzea. Eta barkamena baino, egingdako minaren aitortpena eta konponketa eskuratzea.

“*El Botín* bukatu nuenetik ez dut bururik altxa”

El Botín nobelaren hasieran Walter Benjaminen zita bat dator: “Izena izan ez dutenei ahotsa ematea da memoria historikoa”. W. G. Sebald, ordea, memoria historikoari kritika egin zion, ez aski, ez fidagarri, huts eta errepikakor zelakoan. “Madrilgo alkateak Millan Astrain (inguruotan esaten zitzaion moduan) kale izendegitik kentzeko nahia agertu du. Kontrakoen erantzuna: ez zen frankista izan, ez zuen 36ko Gerran parte hartu. Gezur hutsa. Nola ez duzu



hori idatziko, egia historikoa ere aldatu nahi dutenean? Berdin zait Sebaldek zer esaten duen. Ezin da onartu historiaren berridazketa hau. Nahiko motibo bada idazteko. Ados, aski ez izan arren. Eta aski ez izatea baino, konponezina da, idazten duzuna idazten duzula, ez dago biktimak eta oinordekoak erreparatzeko modurik, jartzen ahal dute plaka bat, lau sos eman. Baina benetako arazoa da ez dagoela borondaterik krimen horiek argitzeko”.

36ko Gerraz idazteko asmoaren antzinakotasuna erakusten duen testu bat aurkitu dugu, *La casa del rojo* egunerokoan: “Gogoan dut orain urte batzuk Carlos Pujoli komentatu nion nobela hura: 1937-1938ko Iruñeari buruzko nobela. Oraindik idatz dezakedana. Narratzailea bilatu beharra nuen. Buruan ibili nituen zapata garbitzaile bat, egunkari saltzaile bat, liburu zaintzaile bat. Gero utzi egin nuen”. 1996ko maiatzaren 28koa da testua. Inon irakur daiteke, halaber, 2005ean, MSO delako bat zela kontakizuneko protagonista. “Hainbeste urtean, goitik behera aldatu da proiektua: hasieran nobela-nobela zen, Mola jeneralaren eguneroko lapurtuak oinarri zituena. Nobela hura eskaini nion Espasa-Calpe argitaletxeari. 2005ean esan zuten ezetz, beste nobela bat zeukatela Molari buruz. Oso ondo etorri zitzaidan Pio Barojaren biografia bukatzeko –nahiz ez zidan ekarri pozik batere: ez zitzaion gustatu oinordekoei, hagiografia hutsa baino ez dutelako nahi, eta negozioak martxan jarrai dezala–. 2011n, San Kristobal gotorlekura egindako bisita baten ondorioz, proiektua berriz hartu nuen arte”.

Egin beharrekoa

MSOk egin beharrekoa ote zen, auskalo bere bizitzako proiektu literario garrantzitsuenak izan ote den, berak nahiago du aurrera begiratu. “Badago beste proiektu bat, nire familiaren historiarekin zerikusia duena, ezin dena gehiago atzeratu: deituko da Chimonco zikloa” (erreferentzia egiten dio Obanos herriko Chimonco etxe familiarrari, Los papeles del ilusionista eleberriarren portadan agertzen den berbera). Nobela moztxeagoak, gertaera zehatzagoak, beste idazmolde bat. “Trilogia izan da zulatutako kotxe baten gurpila puztea bezala, puztu eta puztu, eta testua hedatu, eta ez testuaren beharragatik,

puztearen inertiagatik baizik. Horrek estiloa honda dezake, eta idatzi nahi duzuna kaltetu”.

Trilogiak izan duen harreraz galdetuta, kopeta zimurtu du. “*El Escarmiento* zerbait hitz egin zen, *El Botín* ez ez”. Baina are harrigarriagoa zaio iaz ateratako *La perorata del insensato* eleberriarekin gertatutakoa: “Asko jarri nuen liburu horretan, eta erantzuna izan da erabateko isiltasuna. Nire bizitzan hartu dudak makilakadatik handiena”. Madrilo kazetari entzutetsu batek esan zion: “Oso desagertuta zaude, borroka-argitaletxe horretan argitaratzen duzunetik”. “Pamiela bezalako argitaletxe batean ateratako liburu batek aukera asko dauka kasurik egin ez diezaioeten. Ez dago aitzakiarik, liburuak dendetan daude, prentsako jendeak jasotzen ditu; orduan norbaitek eman behar du azalpenen bat”. *Las pirañas* eleberriarren oihartzuna aipatu diot: “Orain aterako balitz ez luke batere izango. Nitaz esan zuten Batasunakoa nintzela eta ETaren tesiak babesten nituela, 2005ean, kultura munduan pisua handia duen PPko goi kargu batek. Esaldia iltzatuta daukat oraindik. Egunen batean norbaitek ikerituko du garai hartan zer artikulua idatzi ziren Madrilan, eta zer esan zen. Ni harrrapatu ninduen haizete batek bezala, agente literariorik gabe geratu nintzen, adibidez”.

Garai batean ez zen hala: Herralde, Euskadi, Kritika, Principe de Viana sariak, Espainiako argitaletxe garrantzitsuenetan liburuak, Anagrama, Seix Barral, Peninsula. “Anagrama uztea izan da bizitzako erabakirik txarrena. Baina utzi nuen Seix Barraleko tipo batek nahastu ninduelako. Eta gero joan nintzen Espasa-Calpera, eta hori jada izan zen erabateko desastrea. Pio Barojaren biografia, esaterako, ez zuten inon aurkeztu”. Rafael Chirbes zena atera da hizketara: “Chirbesek egin zuen negatibismoa izan zuen guztia. Oroitzen dut Kritikaren Saria eman ziotenean nola joan zitzaizkion TVEko kazetari batzuk. Hasi zen nitaz hitz egiten, geldiarazi zuten arte”.

Hurrena zer aterako duen. Dietario bat, *Rumbo a no sé dónde*, baina azkena: “Aurreko batean, Aizkolegi menditik jaisten, artalde baten atzetik, ardi kaka freskoak ikusi nituen. Eta dietario idazle bat ikusi nuen bertan: errealtatea murtzikatzen duzu, digeritzen, eta kakatxoak uzten zoaz. Kontxo, idaztea ez da



Leioa 2016

OTSAILAK 25 osteguna

“Zerura eroria”

Anodino Teatroa

ANTZERKIA (ESTREINALDIA) · 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 26 ostirala

“Malmö”

Khea Ziater

FILM ESZENIKOA · 20:30 h / 8 €

“Gau beranduan”

Harkaitz Cano, Petti,

Joxan Goikoetxea

MUSIKA-LITERATURA · 22:00 h / 8 €

OTSAILAK 27 larunbata

“Dantza gurea”

Idurre Azkue, Joseba Irazoki

DANTZA-MUSIKA · 20:30 h / 6 €

Joseba B. Lenoir Gang

MUSIKA · 22:00 h / 8 €

OTSAILAK 28 igandea

“Heroiak”

Txalo

ANTZERKIA · 19:00 h / 10 €

BONOA: 30 €

6 ikuskizun eta
Kultur Maratila kit
bat opari



ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 Leioa (Bizkaia)
www.kulturleioa.com

hori. Eta azkenaldian errealitatea asko errepikatzen da, gauzak azkartu egin dira, herrialdea zitaldu egin da modu beldurgarrian. Nekatu naiz ustelkeriak, abusu polizialak, biolentziak apun-tzeaz. Eta ez da generoan fedea galdu dudala: 1974tik idazten ditut egunero-koak, balio didate oraindik pentsatzeko; baina beste erabilgarritasun bat eman nahi diet, ez hain engainagarria”.

Bidean geratutakoak eta datozenak

Ziklo berri bat dator orain: “Zintzilik ditudan liburu batzuk, saiakera laburrak: Oteizaren poesiari buruzkoa, adibidez, beste bat aguretasunari buruzkoa, beste bat sustraitzeari”. Eta garai batean osatu nahi izan zuen Euskal Herriaren historia garaikideari buruzko saila? Hasieran sei nobelako proiektua, *Las armas del tiempo*, atera zen baten bat: “Bidean geratu zen, ez dut horri buruz idazteko gogorik. *En Bayona bajo los porches* izan zen bigarrena, saltsa egon zen pertsonaiek baten familiarekin, molestatu ziren, eta Iruñean izan nituen liskarren hasiera izan zen. Badirudi historia idatzi behar dela garaileek diotenaren arabe-

“Trilogia hau izan da zulatutako kotxe baten gurpila puztea bezala, puztu eta puztu, eta testua hedatu, puztearen inertziagatik. Horrek estiloa honda dezake”

“Anagrama argitaletxea uztea izan da bizitzako erabakirik txarrena”

ra. Hirugarren nobela bat idatzi nuen, *La nave de Baco*, basoa gainezkarazi zuen tanta”.

Izan zuen garai bat, Bolivia, Valparaíso, Bucarest, urrutira joaten zena: “Baina joaten garen lekura joaten gara, lehenago edo beranduago abiapuntura itzultzeko joaten gara. Sekula ez zara erabat esku hutsik itzultzen, noski: baduzu kontatzeko zerbait, zure kontakizuna, eta hori da altxorrik handiena. Gainera, ez duzu ahaztu behar osasun arrazoiengatik bidaia izan zarela”. Jarraitzen dut asko joaten Baionara –liburuak erosteko bizioarekin konplitzera, Arragon liburu dendara–, eta Donibane Lohitzunera, familia politikoa bertan bizi baita. Eta jarraitzen du idazten, asko idazten. “Zertarako? Amore ez emateko, ez etsitzeko. Gaztetxotatik, idatzi egin nahi nuen. Egiatzko heriotza da desertzioa. Gogogabetasuna gainditu behar da, dena zakurraren salara bidaltzeko tentazioa. Eta sinesten duzun hori egin”. Azken esaldi hori bueltaka abiatu dugu itzulerako bidaia. Ez sobera urrutira, ez behintzat Baztango lurrean, MSO baitan izan ginelako ahazteko tarte batean. ■

IKASTAROA PARTAIDETZA ERTZETATIK:

Partaidetza banaka, taldean eta komunitate mailan sustatu eta laguntzeko tresnak, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsona eta kolektiboentzat

IRAUPENA: 80 ORDU

FECHAS: DATAN: OTSAILAK 26-27, APIRIKAK 1-2, MAIATZAK 6-7, MAIATZAK 20-21, EKAINAK 25
OSTIRALETAN 17:00ETATIK 21:00ETARA. LARUNBATETAN 10:00ETATIK 14:00ETARA ETA 15:30ETATIK 19:30ETARA.

SALNEURRIA: 300 €

Beharpenak jasotzeko aukera: Madrilgo Merkatu Sozialeko eta Diagonal egunkari hargiduenentzat, baita kolektibo eta elkarteentzat ere

SAIO BAKAR BATEN KOSTUA: 75 €

Tripartita Fundazioaren bitartez hobariak jasotzeko aukera dago. Eskera egiteko epea: Otsailak 15.

EGITARAUA:

1. SAIOA: POSIBLE AL DA ERTZETATIK PARTE HARTZEA?
2. SAIOA: GURE IKUSPEGIAREN ALDAKETA: PARTAIDETZAREN IKUSPEGITIK BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENEKIN LAN EGITEA.
3. SAIOA: TALDEKO PARTAIDETZA ERTZETATIK HAUSNARTUZ ETA LAGUNDUZ
4. SAIOA: BAZTERKERIA TESTUINGURU BATETIK PARTAIDETZA KOMUNITARIOA
5. SAIOA: GURE PRAKTIKA KRITIKOKI ERAIKITZEA: GAI PRAKTIKOEN INGURUKO AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA.

IZEN EMATEA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA:

Andecha taldea. Partaidetza eta Auzolana
www.equipoandecha.org
formacion@equipoandecha.org

Andecha
participación y trabajo comunitario



2016KO SAGARRONDOTIK SAGARDORA IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN ALKARTASUNA KOOPERATIBAK ANTOLATUTA

*Kinaketa praktikak bertako
Sagastietan egingo dira!*

Otsailak 27:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

Martxoak 5:

ZUHAITZEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Martxoak 12:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK
ETA TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Martxoak 19:

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.
Egoitz Zapiain

Apirilak 30:

LANDAREEN BIZIMODUA. ILARGIAREN ERAGINA.
Xabier Akizu eta Jakoba Errekondo

Ekainak 4:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.
Aitor Etxeandia

Uztailak 9:

ZUHAITZEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Irailak 10:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK eta ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain.

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideak DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943361114 alkartasuna@usurbil.com edo www.alkartasuna.eus

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mezu sekretuen bila



Amaia Alvarez Uribe



Ez tiro egin anbulantziei

MIKEL AYLLON

Elkar, 2015

Ez tiro egin ambulantziei liburuan distopia bat topatuko dugu. Utopiaren kontrakoa, etorkizun hurbilean koka daitekeen jendar-te ilunaren iragarpen moduko bat. Adibide literario ezagunenetakoak Orwellen *1984*, Huxleyren *Bai mundu berria* eta Bradburyren *Fahrenheit 451* dira. Eta hirurak agertzen dira hemen modu batean ala bestean. Distorpiek humanizazioaren galera dute hizpide eta mundu errealeko zenbait gairi arreta emateko erabili ohi dira. Kasu honetan deshumanizazioa arau sozialen zurruntasunari eta teknologia berriei lotuta ageri zaigu. “Kaleko debekuak” ditugu eremu publikoan eskubide eta askatasun murrizketak azalarazteko. Pantailak eta telefonoak ordea, inkomunikazioa eta harremanen desagertzea islatzeko.

Distopiaren barruan heterotopia ere badugu, “bestelako lekuak” edo arauetatik ihes egiteko aukera ematen duten espazioak: kartzela dugu abiapuntu eta hotela helmuga protagonistek egindako ibilbidean. Edo hotelean hasi eta kartzelan amaitzen da istorioa? Liburu honetan egileak egiturarekin esperimentatu du. Izan ere, lau atal nagusi daude: III, II, I, eta 0, kronologikoki atzekoz aurrera kokatuta. Irakurleari informazioa tantaka ematen zaio era horretan, eta amaieratik hasten da narrazioa. Lehen eta bigarren atalak borobilak dira, beregainak izan zitezkeen. Hurrengoetan agian informazio gehiegi ematen zaigu aurretik solte utzitako hari mutur guztiak ondo lotu nahian.

Aurkezten zaigun mundu hotz, motel eta grisean Gerard eta Sylvie dira protagonistak. Azaleko irudiari kasu eginez gero, Magritteren *Les amants* koadroaren arabera, desira frustratua edo ezinezko maitasuna ere izango da liburu honetako gai eta kezka. Baina paradoxikoki, mundu berri bat sortzeko borrokak lehentasuna izanik distopia honetan, ez dago tarterik pertsonen arteko zubiak eraikitzeko, nahiz eta sortu nahi den munduan pertsonen arteko kontaktua eta komunikazioa berreskuratu nahi den eta bitartekari diren tresna eta makinak bazter utzi, automata izateari utziz eta bizidun izatera bueltatuz. Eta hain zuzen horri egiten zaio muzin lortu bitarteko borrokan.

Amaitzeko, asko gustatu zaizkigu hitzei, liburuei eta literaturari buruz tartekatutako gogoetak, hauen indarra eta arriskua nabarmendu nahian egindakoak. Hitzekin jolasean horrelakoak topatu ditugu: “Burmuinaren zirrikituetatik abailtzen ari zaizkizu hitz guztiak, letraka zulo beltzean desagertzen, bizkarretik behera odolarekin nahasian, nahi-nora eta inora ez. Oroimina eta haren eskutik mina. Askatasuna eta asuna. Laztura eta ura. Heriotza eta hotza”. Pertsonaien izenekin ere jolasean dabilta testuartekotasun ariketa bat proposatuz. Izenak aldatzeko ohitura du pertsonaietako batek. Bere gustuko liburuetatik hartzen ditu berriak, irakurlearentzat ezagunak izan daitezkeenak eta beste liburu batzuetara salto egiteko gonbitea egiten dutenak. Liburuz liburu mezu sekretuen bila abiatzeko deia dugu esku artean. ■

» TELEGRAMA

Otsailaren 21ean iritsiko da aurtengo **Libertimendua** Donapaleura: dantzak, musikak, bertsoak eta zirtzilen antzerkiek osatzen dute ikuskizuna **STOP Ruper Or-dorika** Durangoko Plateruena Kafe Antzokian ariko da otsailaren 20an, **Aguxtin Alkhaten** doinuek hasiko duten gaudi-dantza **STOP** Kooltur Ostegunak ekimena apustu segurua da Arrasateko Gaztetxean: **McOnak**, **Small Jackets** eta **Akatz** taldeekin emanaldi entretenigarria aurreikusten dugu otsailaren 18an **STOP**

» DISKOA

Barrokoz blai



Montse Auzmendi

Gasteizko Kontzertu Handien Zikloa

FORMA ANTIQVA TALDEA

Zuzendaria: Aarón Zapico.

Bakarlaria: Carlos Mena (kontratenorra)

Bach, Händel eta Vivaldiren obrak.

Gasteizko Principal Antzokia. Otsailaren 2a

Hasi da Gasteizen Kontzertu Handien XI. zikloa. Aurreko urteetan bezala, izen ospetsu eta kalitatezkoak izango ditugu bost saiotan, nahiz eta esan dezakegun, egitaraua ikusita, aurtengoa agian aurrekontu txikiagokoa dela. Bestalde, zikloaren kudeaketa promotore baten eskuetan geratu da eta desberdintasunak ikusten dira, adibidez eskuko programa askoz pobregoetan.

Baina goazen musika aztertzerara. Aldi honetan, antzinako musikan espezializatuta dagoen talde bat izan dugu, Forma Antiqua eta kontratenor onenetako bat, Carlos Mena gasteiztarra. Bai taldeak, bai abeslariak errekonozimendu handia dute mundu osoan, eta Principal Antzokian emandako errezitaldian erakutsi zuten ospe hori merezia dela. Kontrastedun egitaraua eskaini zuten. Alde

batetik, Bachen soiltasuna, eta, bestetik, Vivaldiren eta Händelen musikaltasun fresko eta bizia. Bigarren honetan sentituen genituen artistak erosoago, *à l'aise*

Saioa hasteko, Bachen *Concerto for oboe d'amore* entzun genuen. Jatorrizko tresnez osatutako taldeak sonoritate eder eta orekatua lortu zuen. Bestalde, oboe bakarlariak abileziak proiektatu zuen bere antzinako instrumentuaren soinu txiki baina beroa. Jarraian *Ich habe genug* (Nahikoa daukat) kantata sentitua disfrutatua genuen. Carlos Menak jakinduriaraz erabili zuen bere tinbre bereziko ahotsa, primeran modulatuaz uneoro.

Bigarren zatian beste mundu musikalki batean murgildu ginen. Bachen barroko protestanteak ez du zerikusirik Vivaldiren Venezia katoliko eta haragitsuarekin. Händelen *Concerto grosso 10* obra sarrera aproposa zen Vivaldiren kantata eta salmoentzat. *Concerto*, lan dinamikoa, suite frantziar baten antza duena, taxuz interpretatu zuen Aarón Zapicok zuzentzen duen taldeak, doitasunez. Baina plater ederrenak Vivaldiren lanak izan ziren. Konpositore honen *Cantata Cessate, omai cessateren* bizitasuna primeran iritsi zitzaigun, batez ere Menaren abesteko modu eta fraseaketa freskoari esker. Gauza bera esan dezakegu *Salmo 106 Nisi Dominus* obrari buruz. Bertsio distiratsua eta orekatua egin zuten. Propina gisa, Antonio Caldaranen *Magdalena Kristoren oinetan* kantataren zati bat interpretatu zuten. Gozagarria. ■

Forma Antiqua taldea.



Egun bat Jose Luis Guerinekin

L'ACCADEMIA DELLE MUSE

Iruñeko Ikuspuntu festibalaren 10. edizioaren barruan eman zen filma.

Baluartan, otsailaren 13an.

Zuzendaria: Jose Luis Guerin.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorrria



Jose Luis Guerin zuzendariari ia egun osoa eskaini zion Iruñeko Ikuspuntu festibalak joan den larunbatean, hamargarren edizioa itxi aurretik. Goizean *L'Accademia delle muse* aurkeztu zuen, sarrera onarekin: “EAJren ekitaldian baino jende gehiago elkartu gara eta hori ez da erraza”, egin zuen broma Oskar Alegria festibaleko zuzendariak, Baluartan egun berean antolatu zuten Batzar Nagusi jeltzalea aipatuz. Zinegile kataluniarraren fikziozko pelikulak beste mota bateko fikzioa izan zuen lagun beraz –horrelako aukerak eskaintzen dituzte gure ekipamendu kultural handiek–.

Nolatan fikziozko lan bat zinema dokumentala ardatz duen festibalean? Beste erremediorik ez duelako izan, osterantzean Iruñeko aretoetan ez zutelako proiektatuko. Konbentzionaletik urrun dagoen istorioa da nolanahi, faktura hurbilago baitago dokumentaletik eta lan-metodoa ere arras berezia da: gidoirik gabe errodatua eta filmean be-

zala, benetan ere Bartzelonako Unibertsitateko ikasle diren protagonistekin. Hortaz, asmatutako tramaren eta kontakizun faktualaren arteko mugak non dauden galdetzen duen lana da.

Irakasle italiar bat, batez ere emakumez osatutako musen akademia batean eskolak ematen. Goi mailako literaturari buruzko gogoetak, erreferentzia klasiko ugari, eztabaida eruditua... eta pixkanaka ikasleekin edukitzen hasiko den harreman sorta. Dena oso plano intelektualean gertatzen da eta hasieran pentsatzen duzu bikote harremanei buruzko planteamendu ez normatiboren batera iritsiko direla. Keba: apurka jabetzen gara ikasleak maisuaren autoritate falikoaren menpeko bihurtzen direla eta, funtsean, *reality show* bateko harreman kodeak erreproduzitzen dituztela –Dante errezitatzuz, hori bai–.

*Un principe para tres princesas*en bertsio kultu bat beraz? Tira, distantzia ironikoz ikustea eskatzen duen lana behintzat

bada. Edo betaurreko moreak jantzita: emakumeek bikote-harremanetan jasaten duten azpiratzeak zein mekanismo konplexuak izan ditzakeen berresten du *L'Accademiak*; zein eraginkorrek diren mekanismo horiek, baita filmeko emakume ahaldunduen kontra ere –salbuespen bakarra Carolina izeneko pertsonaia da, zeina irakaslearen autoritate intelektuala auzitan jarriz nolabait askatzen den–.

Arratsaldean oso bestelako lana estreinatu zuen Guerinek. *Le Shapir de Saint-Louis* enkarguzko obra da eta Alain Resnaisen *Guernica* ekarri zidan gogora, margolan bat grabatuz eta testuaren laguntza hutsarekin kontatua baitago. Beste garai bateko filma dirudi, kasik omenaldi bat Resnaisek berak edo Chris Markerrek egindako zinemari. Ondoren zuzendariarekin izandako tertulian ikusleek bi filmetako zeini buruz galdetu zuten ikusita, argi geratu zen bigarren ikusitakoa lan txikitzat hartu genuela gehienok. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Amaia Iturriotzek 2014an Azpeitian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Santa Barbara zure bizitza B*. Gaia: Ez zenuen uste, baina bizitzak beste aukera bat eman dizu.

Onkologian ingresatuta
____ naiz hainbeste gauez
bularren neukan minbizia ta
zergatik pasa zen ____
ibiltzen nintzen ta sendatu naiz
____ dotore batez.
Alboko oheko neska joan da
bizitzak ein dio ____
ta ez dakit nork erabaki dun
nork merezi dun ta ____ ez. (bis)

Zein gogorra den kimioa hartzen
____ arrastia!

Ta etorkizunak zer dakarren'e
ez ____ garestia.

Hantxe jardun naiz ____ arte
ez da izan kontu ezta
baina aurrera irten ____ eta
gaur sentitzen naiz aztia.
Egunez ____ kunplutuko det
eiteke dedan _____. (bis)

Bular bakarraz bizitzeko dut
behar hainbeste ____:
familikoak maite zaituzte
ze maitasun ta ze ____
jasoa dudan berriro negar
____ nuen aldiro.

Nola bizitzak aukera ____
didan pozik naiz berriro
bi eskuekin ____ diot
ta ez dit alde egingo. (bis)



O	L	O	M	J	I	U	F	N	C	O	O	D	D	P
R	L	T	G	E	M	G	S	M	O	B	U	R	P	Z
I	C	T	M	H	U	A	E	M	O	R	B	B	O	N
G	A	T	A	E	N	U	J	R	Z	M	K	C	U	E
G	A	L	D	E	Z	I	R	Z	C	O	E	E	T	T
S	E	D	M	P	G	O	N	H	A	T	P	G	A	I
E	T	A	H	Z	K	G	N	F	H	I	F	O	D	G
H	N	E	H	A	L	A	P	A	I	B	N	N	N	E
I	T	N	R	N	Z	T	Z	A	H	O	C	O	E	R
S	D	R	F	U	C	M	I	V	S	D	G	H	S	G
I	T	C	H	B	I	E	Z	R	H	A	E	P	M	G
L	A	V	G	U	H	M	T	Z	Z	L	T	P	U	F
M	I	R	D	R	C	I	M	T	D	M	R	Z	B	S
E	Z	E	N	A	I	Z	N	U	G	E	T	F	E	B
J	A	K	I	T	E	A	K	R	C	I	F	L	A	A
T	G	N	R	C	P	O	J	N	A	Z	H	M	H	J

Sudoku

Erraza

			7			5		
1		4	2		5		3	
5	7	6						
4		3	5	1		9	7	6
6								1
7	1	2		9	3	4		5
						8	4	7
	6		4		9	1		3
		5			7			

Zaila

	6		4		1	7	9	
				9	8		3	6
7				6	5	3		
	3						1	
		2	8	3				7
6	2		9	1				
	9	1	6		3		4	

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										

Ezker-eskuin:

1. Apustu egiteko hitza. Festa. 2. Pertsona multzo handia. Inguruko lurretatik nabarmenki goratzen den lur zati. 3. Kupela. Elikatu. Zazpigarren musika nota (alderantziz). 4. Ile multzo artifizia. 5. Adindu. 6. Euskal Herria. Desagertutako ugaztun. Kontsonante errepikatua. 7. **Irudian**. Luzera neurria, metroa



Bukvoed-CC By

baino zerbait laburragoa.
8. Oroipen. Fidel.

Goitik behera:

1. Ostrukaren antzeko hegazti. Erabateko, bete-bete. 2. Trapu. Zizare. 3. Esaten duena. Ño, tori!
4. Tantaloren sinboloa. Ukan.
5. Zintzarri. 6. Mardul. 7. Zehaztu gabeko pertsona-kopuru. Suari dariona. 8. Leku atzizkia. Arerio, aurkako. 9. Zezen zikiratu. Usaimena. 10. Erraz. Saldu aditzaren infinitiboa.

Soluzioak

Onkologian ingresatuta/egon naiz hainbeste gauez/bularren neukan minbizia ta/zergatik pasa zen galdex/ibiltzen nintzen ta sendatu naiz/borrnoka dotore batez/Alboko oheko neska joan da/bizitzak ein dio thes/ta ez dakit nork erabaki dun/nork merezi dun ta nork ez/Zein gogorra den kimioa hartzen/pasatzea arrastia/ta etorkizunak zer dakarren'e/ez jakitea garestia/Hantxe jardun naiz sendatu arte/ez da izan kontu ezta/baina aurrera irten naiz eta/gaur sentitzen naiz aztia/Egunez egun kunplutuko det/eiteke dedan guztia./Bular bakarraz bizitzeko dut/behar hainbeste motibor/familikoak maite zaituzte/ze maitasun ta ze gryo/jasoa dudan berriro negar/egiten nuen aldiro/Nola bizitzak aukera eman/didan pozik naiz berriro/bi eskuekin heldutako diot/ta ez dit alde egingo.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Iker Moreno. Noizean behin orbainak desjosten



Torturatuaren buzoa jantzita ibili da Torturaren Aurkako Egunaren harira antolatu duten ekimen sorta dela eta. Bestelakoan Iker da, langilea, artista, laguna. Ez du bere burua kategoriatxietan babestu nahi; are gehiago, ariketa zintzoa egin du bere buruarekin eta erabaki du iraganean bizitako militantzia, kartzela eta tortura saioak, baita epaiketaren zain daraman denbora ere, berak nahi duen moduan biziko dituela: maskararik gabe, bere emozioak eta barne prozesuak erdigunera ekarriz.

“Torturaren imajinarioa zabaltzeko lan handia egin behar da oraindik”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Torturaren bizipena adierazi artearen bidez

“Oro har, torturaren inguruko kontakizuna zerbait tragikoa dela ezin da ukatu; guztiok ditugu buruan elektrodoak, poltsa, jipoiak. Baina hori baino gehiago da tortura, barruan grabatuta geratzen zaizkizu bestelako sentipenak eta egunerokotasunaren bizipen txikienetan ageriko bihurtzen dira. Horregatik garrantzitsua iruditzen zait iruditegi hori zabaltzea; egun hauetan hori bilatu dugu, esaterako, adierazpen artistikoaren bidez adierazi nahi ditugu bizi izan ditugunak”.

Buzoa jantzi duzu egun hauetan baina entzun izan dizut ez duzula torturatuaren paperetik eraiki nahi zure burua.

Hala da, tortura eta kartzela nire bizitzan eman diren egoerak izanik ere, uste dut beste hamaika elementu gehiago dagoela nire biografian; hala, ez dut preso ohi edo torturatu ohi etiketapean soilik eraiki nahi nire identitatea. Dena den, egun hauetan jantzi hori jarri dudala esaten dut ohitu naizelako egin zidaten hori noizean behin ateratzen, tripak irekitzen, daukadan hori bota eta berriz ere orbainak josten, helburu politiko zehatzak lortze aldera, baina baita terapi modura ere.

Une honetan zein da zure harremana eragin zizkizuten torturekin?

Esan dizudan bezala, lanketa handia egin dut gaiarekin. Hasiera batean, espetxetik atera nintzenean kaleko egunerokoari eutsi nion bizitakoari arreta berezirik eskaini gabe. Baina denbora-ekin ohartu nintzen zerbaitek ez zuela funtzionatzen nire barruan; “ez dakit

zer pasatzen zaidan baina hau ez naiz ni”. Azalekoa nintzela. Torturek nire egunerokoan eragiten zutela baina aldi berean ez nuela ezer sentitzen. Laguntza psikologikoarekin, egin zigutena sentitzen hasi nintzen arte. Hortik aurrera, uste dut torturaren iruditegia zabaltzeko behar dela: ez da jazarpen fisikoa soilik, osagai psikologikoa da denbora-ekin gailentzen dena.

Eta Eva Foresten *Una extraña aventura* iritsi zen zure eskuetara halako batean.

Hala da. 1977an idatzitako liburu horrek hamar emakume presoren arteko elkarrizketa kontatzen du eta torturaren imajinarioa zabaltzeko oso baliagarria egin zait. Nik buruan neukan tortura oso praktika fisikoa zela, alabaina, denborarekin metodoa sofistikatu dute eta askoz psikologikoagoa bilakatu. Ni txikitu nindutenean alderdi psikologikoak pisu handia izan zuen. Gerora ulertu dut luzera begira, barruan bestelako aspektuak geratzen zaizkizula: errua, lotsa... Pentsa, duela gutxi ohartu naiz badela



"Ez dut preso ohi edo torturatu ohi etiketapean soilik eraiki nahi nire identitatea".

antsietatea eragiten didan zerbait orain arte oharkabea pasa zaidana eta hori, hain zuzen ere, itxoitea da. Konturatzen naiz zerbaiten zain egoteak erabat urduritzen nauela eta pentsatu nahi dut torturak utzi didan arrastoagatik dela. Eva Forestek horri guztiari buruz hitz egin zuen liburu horretan; inguratzen zaituen atmosfera, psikologikoki eragiten dizuten beldurra, barruan geratzen zaizuna...

Nolakoa izan daiteke aipatzen duzun kontakizun zabalago hori?

Hasteko, esan beharra dago ez dela erraza bortizkeria politiko jakin bat bizi izan dugunontzat bizitzan aurrera egitea. Eta ez dut esan nahi guri gertatu zaiguna gerta daitekeen okerrera denik; bizitzan bestelako egoera gogor asko dago. Halere, jazarpen poliziala, espetxea, epaia edo tortura jasan dugunok gabezia handi batekin bizi gara: guri egin digutenak intentzionalitate politiko argia izan du eta erantzuleek ez dute egundo onartu motibo horregatik egin zigitela. Ez du inork adiera-

zi "kalkulu politiko baten arabera estrategia oso bat diseinatu genuen zuek politikoki garaitzeko": Torturatzea ez gertatzen, erabaki egiten da, baina ez dugu horren ardura hartuko duen inor. Horrek ezberdintzen du gure bizipena beste bizipen gogorretatik; alzheimerra ez da erabaki politiko baten ondorioa, tortura bai.

Bestalde, zuk ez duzu bat egiten gizon-hegemonikoaren ereduarekin.. Eraginik izan du horrek?

Noski, batez ere nire identitatean maskulinitateak eragin handia izan duela. Nire emozionaltasuna zentroan jarri dut beti eta oro har, nire gizontasun bazterreko honek ondorioak izan ditu. Aurkarien artean zein nire kideen artean; guztietan izan du islarik. Orokorrean, ez da erraza espazio politizatu baten erdigunean dimentsio emozionala jartzea; are gehiago, esango nuke Ezker Abertzalean edota feminismoan ere, alderdi maskulinoak direla ahalduntzeko gaur egun dauden bide nagusiak. Hortik, atez kontuak.


Ez dela erraza esan nahi duzu.

Ez. Diferentzia horrek pisu handia hartzen du edonon. Mundu guztiak nahasten ditu identitatea eta joera, gizontasun femeninoa eta homosexualitatea. Tortura saioetan, esaterako, uzki bidezko sexua irudikatzen zuten praktikak egiten zizkidaten, horrek dituen konnotazioak agerikoak direlako; min handiagoa egingo zidatelakoan edo. Baina era berean, eta ezberdina bada ere, nireak sentitzen ditudan espazio politikoetan ere emozionaltasunak ahuldade konnotazioa du. Sentipenak mahaigaineratu izan ditudanean deserosotasuna sortu da, batetik, emozioak gune politikoetan arrotzak direlako, eta bestetik, emozio horiek azaleratzen dituen biktima bihurtzeko joera dugulako. Eta nire ustez, guztiok sufritu dugu asko baina hori kudeatzeko moduetan dago ezberdintasuna, besterik ez. Nik, esan bezala, aspaldi erabaki nuen nire barne prozesuak nire bizitzaren erdigunera ekartzea, maskararik gabe bizitzen saiatzea. Bide horretan, nire moduei lekutxo bat egingo dio eta aniztasunetik aberastuko den Ezker Abertzale bat nahi nuke. ■



“Guk beti bat gehiago” mugimendu internazionalista sortu dute

Euskal Herrian jasaten diren eskubi-de-urraketak atzerrian ere albiste bihurtu direla ikusirik, “Guk beti bat gehiago” mugimendu internazionalista sortu du herritar talde batek. Gogorarazi nahi dute munduko edozein herrik bizi duen zapalkuntza lehenago Euskal Herrian sufritu dugula. Bereziki Espainiara eta Kataluniara begira egingo dute lan: “Adibidez, titiriteroak kartzelan sartzen dituztela? Ba haien alde manifestatzen direnei gogoraraziko diegu paso egin zutela Pirritx eta Porrotx kriminalizatu zituztenean”, azaldu du mugimenduko eledun batek. “CUPekeokin ere hitz egin nahi dugu, hemengo antolakuntza-ere-



Mugimendu internazionalistaren logoa.

duek euren asanblearismo ultrakoherente hippy horrek baino gehiago balio dutela uler dezaten”, gaineratu du.

Urteko TXEMIa: Yanis Larrufuckis

Greziako finantza ministro ohiak Demokrazia Europan Mugimendua 2025 (DiEM2025) aurkeztu du. “Europa aldatzera nator, eta horretarako nire armarik onena erabiliko dut: sedukzio greziarra”, esan du morroiak harro-harro.

Europar Batasunaren bilakabideaz galdetuta, honakoa erantzun du Larrufuckisek: “Uste dut jarrera guztiak probatu behar direla; prest gaude Europa herdoil honek dituen zulo guztiak estaltzeko, 69aren espiritua berreskuratu behar dugu”. Ministro ohia 2016ko TXEMI saria (Txortan Egiteko Moduko Iraultzailea) irabazteko faborito nagusia da, Hasier Blai analistaren arabera. “Pozten naiz gizon ederrei buruz nire iritzia galdetzeaz, izan ere horretarako naiz politologoa”, azaldu du adituak.



“Eskuinik gabe hobeto, maitia”, izanzen düzü DiEM2025-en leloa heldu diren bozetan.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskaldunon Eginkaria aurrera!



Mugimendu indiferentea eta eskertiarra



Txantxiku hegalaria



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
| HERRIEN MUNDUA
INGURUMENA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



ARGIA kazetaritza konprometitua egiteko erabiltzen ditugun baloreen arabera interpretatzen dugu Euskal Herriko errealitatea, baita munduko gainerako herrietakoa ere. Internazionalismoa eta nazioarteko elkartasuna lantzen dituzten EHko taldeak dira gure iturri nagusiak. Urrunekoaren berri emateko ere errora jotzen saiatzen gara eta, hala, hainbat hedabide independenterekin elkarlana bultzatu dugu. Jatorrizko herriak, kultura minorizatuak eta Estaturik gabeko herriak ditugu bidaide.

OTSAILEKO ZOZKETAK



Munduko Jolasak
(5 jolas)

Txatxilipurdi elkarteak
www.txatxilipurdi.com



Euskararen berreskurapena
(3 bilduma)

Garabide elkarteak
www.garabide.eus



Askapenako materiala
(3 saski)

Erakunde internazionalista
www.askapena.org



Europako Herrien Mapa
(3 mapa)

ARGIA
www.argia.eus/denda

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BL
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIaren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**

